


Euskal Herriko kondairak

MICHEL COSEM



IBAIZABAL

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du.*

© IBAIZABAL ARGITALETXEA, 1998
© EDITORIAL LUIS VIVES, 1998
© MICHEL COSEM, 1998

AZALEKO MARRAZKIA: Jesse
BARRUKO MARRAZKIAK: François Vincent
ISBN: 84-8325-184-1
LEGEZKO GORDAILUA: Z-2931-98
KOORDINATZAILEA: Sabin Gorrotxategi
ITZULTZAILEA: Sabin Barruetabeña
AZTERTZAILEA: Jabi Artaraz
BERRIKUSTAILEA: Julia Alberdi
MAKETATZAILEA: Begoña Garaizabal

INPRIMAKETA: Edelvives Tailer Grafikoa



ISO 9002
Ziurtagiridun
Tailer Grafikoak

ALE-KOPURUA: 2000

Euskal Herriko kondairak

MICHEL COSEM


Azaleko marrazkia:

Jesse

Barruko marrazkiak:

François Vincent

UDAL LIBURUTEGIA
POZOKOETXE
KULTUR ETXEA
BIBLIOTECA PUBLICA



R.12978

Sarrera

Aizu, kontatuko al zenidake elezabar bat?

Era guztietako elezaharrak ezagutzen dira Euskal Herrian. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Behenafarroa, Zuberoa eta Lapurdi bedatzen diren lurraldekoak, gure egunetan ere mintzatu eta idazten den hizkuntzak nortasun bereziz elkartzen dituen zazpi probintziatakoak.

Lurralde berezi honek paisaia desberdinak ditu, ezustekoak ugari, mendiak eta itsasoa, lautada berdeak, arroilak eta mendikate desertuak. Horma zuri eta leiho gorri eta berdeak dituzten etxeak batzuetan bakarrik, hurrengo herriak sortuz, plazan pelotan jokatzen den frontoiaren inguruan pilatuta.

Apaindura jarria dago eta harrigarriak errealitatearekin elkartzen diren toki honetan azaltzen dira bide baten inguruan, sorginak eta jeinuak: sorginak zelatan eta laminek ezustekoren bat gordetzen beren zorroetan.

Dragoiek ez dute uzten kontatzen, ogroak gose dira eta deabruak ez du galtzen arimaren bat erosteko aukerarik... Fantasiazko izaki hauek ezin dira egon sudurra sartu gabe jendeen, artzainen, itsasgizonen, lapurren, printzesen eta zerbitzarien bizitzan... zenbait aldiz istorio bakanak, zenbait aldiz triste eta beldurgarriak sorraraziz.

Michel Cosenek hogeita hamarren bat elezabar bildu zituen Euskal Herrian zehar.

Kontakizun bakoitzari sarreratxoa jarri dio eta mapa batean karratu beltzaren bidez adierazten digu istorioa non gertatzen den.


Francois Vincentek elezabar hauei marrazkiak jarri dizkie, kontatzeko beste modu bat baita. Beraz, utzi zuen irudimenari lumak eta pintzelak gida dezaten; bidaia atsegina izan dezazuela Euskal Herriko fabularen bihotzera.



Anbotoko Mari

1

Mari: bera da euskal ipuinetako pertsonaiarik garrantzitsuena. Bera da beste jeinuen buru. Izen asko hartzen ditu: Maia, Mairi, Maide, Maindi, Amaia edo soil-soilik Anderea, beti azaltzen baita emakume eder eta aberats gisara. Hartzuloetan, harpeetan, bizi da. Leku askotan du egoitza, baina batez ere Anboton.





Bizkaiko jaun bat, Diego Lopez de Haro jauna, ehiztari handia zen. Basurdeei segika ibiltzen zen urrutieneko baso, oihanarterik ilunen, sakanarik hurbilgaitzenetan.

Behin batean, basapiztia bati segika ari zela, abesti miragarri bat entzun zuen. Geratu eta entzuten jarri zen: ez zegoen zalantzarik, emakume bat ari zen kantuan zuhaitz batean.


Hurbildu zen Diego Lopez de Haro eta han ikusi zuen. Sekulan ez zuen izan halako emakume ederrik begibistan. Segaila, lerdena, larruazala zuri gardena oso, begi beltz eta sakonak, adatsa horeila. Urrez bordatutako soineko berdez jantzia eta urrezkoa bere adatseko xingola ere. Jauna liluraturik zegoen begira.

—Nor zara zu? —galdetu zion.

—Leinu argiko emakumea —erantzun zion aldarte onean.

—Neu naiz lurralde honetako jauna. Biok ezkon ote gintezke?

Marik gogoeta laburraren ondoren, irribarre egin zuen.





—Bai, ados nator, baina hitza emaidazu nire aurrean ez duzula behin ere «Jainkoa» hitza esango.

Diegok onartu egin zuen.

Ezkondu ziren eta mutil bat eta neska bat izan zituzten. Iñigo Gerra zen mutilaren izena. Oso zoriontsu bizi ziren denak batera gazteluan.

Baina egun batean, Diego jaunak basurde handi bat ekarri zuen ehizatik. Zerbitzariak berehala prestatu zioten gaueko afaritarako.

Familia guztia mahaiaren inguruan zela, etxeko bi txakur jantokian sartu eta zaunka hasi ziren. Bata artzanora handia zen, bestea kanitxe txikia. Diego jaunak parrez basurdearen iztar puska bat bota zien. Bi txakurrak norgehiagoka lehiatu ziren eta, denen harriduraz, txikiak kendu egin zion handiari eta ihes egin zuen iztar puskaekin.

Diego jaunak, txunditurik, oihukatu zuen:


—Jainko Jauna! Sekula ez dut ikusi antzekorik.

Une berean, Mari, hartu bere alaba eta leihotik zehar aldendu zen hegazka. Ez zen gehiago haietaz ezer entzun.

Zenbait urte geroago, Diego Espainiara joan zen gerra egitera. Preso hartu zuten eta gaixorik zegoen Toledoko gotorleku batean.

Iñigok, semeak, hura askatzera joatea erabaki zuen. Hitz egin bere inguruko senideekin, baina inork ezin zion eraginkortasunez laguntzen.

Bat-batean, guztiaz gogoeta egiten ari zela, agure bizar zuri bat agertu zitzaion:





—Iñigo, laguntza beharrean bazaude, zoaz zeure ama-
rengana. Berak esango dizu zer egin.

Iñigo Anbotorantz abiatu zen. Ez zuen zaila izan ama
zuhaitz batean aurkitzea.

—Iñigo, ene semea, —esan zion Marik— zatoz nire-
gana. Badakit zer nahi duzun. Zure aita nola askatu galdetu
nahi didazu.

Marik dei bat egin zuen eta, berehala azaldu zen, zaldi
zuri eder bat.

—Hona hemen Pardal, —esan zion Marik semeari—.
Horrekin beti izango zara garaile, baina ez diozu behin ere
zelarik kendu behar, ez diozu behin ere edaten edo jaten
eman behar. Gaur gauean bertan eramango zaitu Toledora.
Zeu eta zure aita eseri zaitezketete soilik horren gainean.
Pardalek hona ekarriko zaitue.


Iñigo Pardalen gainera igo zen eta, konturatu orduko,
Toledoko kartzelan zegoen. Presoaren bila hasi zen, patio-
etan, geletan. Azkenean, lotan aurkitu zuen.


—Aita, —dei egin zion xamurki.

—Zertan ari zara hemen? —Diegok erantzun, semea
han ikusteaz harrirituta.

—Ixo! Zeu salbatzera etorri naiz.

Diegok eta Iñigok kartzela osoa zeharkatu zuten. Gau
iluna zen. Inork ez zituen ikusi. Zaldia aurkitu eta, denbo-
rarik galdu gabe, biak igo ziren gainera. Begien itxi-ireki
batean Bizkaiko gazteluan zeuden.








ANBOTOKO MARI

Zoriontsu bizi ziren. Zaldia belardi zabaletan bazkatzen zen. Diego Lopez de Haro jauna goizero joaten zen bere txakurrekin basurdeak ehizatzen. Iñigo abentura berrien ametsetan zebilen. Marik, etxean behiren bat hiltzen zen bakoitzean, larru bat hartzen zuen eta opari gisara zuhaitz batean uzten zitzaion.

Goizean, ez zen aurkitzen.

Esaten diren hauen ondoren, argi zegoen zer egin behar zen, bestela zoritxar handiak eroriko ziren Diegoren eta bere familiaren gainera. Horrela egin zen urte luzeetan. Gero ahaztu egin zituzten opariak...

Jauregia ere hondatu eta erori egin zen, eta han ez zen gehiago Diego eta Mariren ondorengoaren arrastorik geratu.






Hiru olatuak

2

Euskal arrantzaleek, ur handietan dabiltzan bitartean, ez dute behin ere «sorgin» hitza esaten. Pertsonaia horretaz zerbait esan behar dutenean, «olatu ondoan dagoena» esaten dute. Arrantzaleen emazteek ere ez dute behin sorginen pasadizorik aipatzen senarrak itsasoan dituzten bitartean...





Bazen Bermeon sorgin bat. Besteenak bereganatzea zen haren grina. Kezka sortzen zuen aurkitzeak, eskuetan zenuena eskatzen baitzizun; aldean zenuena ere beretzat nahi zuen: paparreko orratzak, idunekoak. Hitz batean, ezusteko mila gauza.

Egun hartan Mattin arrantzutik zetorren otzara bete bokartarekin.

Bidean zegoen sorgina.


—Kaixo Mattin, arrantzu ona gaur, ezta?

—Bai, ez da gaizki egon. Neketsua izan da lana, baina merezi izan du...

Arrantzalea bere bidetik ahalik bizkorren abiatzera zihoan, ez baitzuen atsegin sorginarekin topo egitea.

—Baina —esan zion emakumeak—, zergatik ez dizkidazu ematen bokarta horiek?

—Ezta pentsatu ere, ez ekin alferrik! —erantzun zion Mattinek aztoratzen hasita—. Alde paretik, atsoa!





Hori esanik, sorgina alderatu egin zen eta arrantzalea bere bideari lotu zitzaion biziki. Atsoak ezin zuen disimulatu bere haserrea.

—Madarikatua! Ordainduko dizkidazu ba esandako hitz horiek...

Gero bere alaba sorginaren eta beste lagun baten bila joan zen.

Hirurak elkartu ziren.

Mattin arrantzaleak alderatu egin nau eta ez dit eman nahi izan bokarta otzara eta atsotzat hartu nau... Hau ezin diot barkatu...

—Ez, guk ezin diogu barkatu —erantzun zuten beste sorginek.

—Bihartik, itsasora itzultzen denean zelatan arituko gaitzaizkio. Hiru olatu esker ga sorraziko ditugu bere aurka. Lehenak kezkatu egingo du, bigarrenak dardarka jarriko eta hirugarrenak hondatu egingo du.

Hirurak algaraka aritu eta hondartzara joan ziren.


Baina hormatxo baten ostean ezkutaturik, Takiok, Mattinen auzokoak, entzun egin zuen sorginen asmoa. Adiskidearengana joan zen horren berri ematera.

—Bihar, zu arrantzuan ari zarela, sorginek hiru olatu erraldoi bidaliko dituzte zure aurka. Zure lekuan, ni ez nintzateke joango.

Mattinek pentsatzen aritu ondoren:

—Beti da arriskutsua olatuei aurre egitea —esan zuen bokarta arrantzaleak—, baina ez naiz geratuko lehorrean sorgin hori dela eta!

Biharamunean itsasoratzea erabaki eta sareak prestatu





zituen. Takiori eskatu zion laguntzera joateko eta onartu egin zuen auzokoak. Berak ere ez zuen adierazi nahi sorginen beldur zenik.

Goizean, biak joan ziren itsasora. Arrantzuan hasi berterik ez eta han ikusi zuten, zuzen-zuzen zetorkien olatu erraldoia.

—Kontuz, Takio, hemen dugu lehenengoa.

Olatua iritsi zen, astindu zuen txalupa eta desagertu egin zen.

—Aurki izango dugu bigarrena —esan zuen Takiok pentsakor.

—Hor dugu, adiskide Takio! Hau arriskutsuagoa gertatuko zaigu.

Bigarren olatua lehenengoa baino handiagoa zen. Olatuak ezkerrera okertu zuen txalupa, gero eskuinera, berriz astindu zuen, untzitxoaren egitura ahula desegin nahi balu bezala.

Baina hau ere aurrera joan zen.


Mattin eta Takiok beren zirrarak ateratzeko ia betarik ez zutela, han ikusi zuten jaikitzen hirugarren olatua. Aurrekoak baino handiagoa zen, beltzagoa, ikaragarriagoa.

—Erne —dio Mattinek—, hutsik txikienera, galduak gara.

Hirugarren olatua bizkor ari zen hurbiltzen.

Mattinek hartu zuen bere arpoia eta txaluparen barruan lotu zuen. Takiori eskatu zion lemari sendo eusteko.

Irtisia zen olatu eskerga. Ia galduak zituen untzia eta arrantzaleak. Gainera zetorren txalupari tirabira eragitera, gizonak irenstera. Ez ziren berriz aipatuak ere izango.






Olatua pare-parean zutela, Mattinek, indar guztiarekin, arpoia jaurtiki zion. Olatuaren bihotzean sartu zen. Bat-batean garrasi izugarria entzun eta olatua gorri bihurtu zen. Baina olatua hazi eta untziaren gainera erori orde, baretu egin zen bat-batean eta, txalupari ukitu gabe, desagertu.

Mattin eta Takiok elkar besarkatu zuten pozez. Irabazi egin zioten olatuari, irabazi egin zieten sorginei. Ez ziren luzatu arrantzuan eta azkar itzuli ziren portura.


Gaineko egunetan, zeresan handiak zituzten Bermeoko hondartzan, nondik ote zebilen handik igarotzen zirenei gauzak eskatzen maiz ibili ohi zen emakumea. Zapatila bat utzi zuen hondartzan. Harrezkero inork ez zuen ikusi. Laster ulertu zuten zergatik zebiltzan lutoz sorginaren alaba eta adiskidea eta zergatik joaten ziren negar egitera itsasertzera.



Mahistruba, itsaskapitaina

3

Itsasgizonak nabigatu egin behar du, batez ere euskalduna bada. Amerikak aurkitzera joan behar du bere untzian, olatuen aurka borrokatu, arrainen eta korronteen aurka... Baina, batez ere, aberats itzuli behar du eta istorio eder askoren jabe bere birlobei kontatzeko...





Mahistrubak ez zuen untzirik eta atsekabez bizi zen. Egu-
nero zihoan Hendaiako itsasoko olatuak ikustera. Harkaitze-
tan eseri eta negar malkoak zerizkion bi begietatik.

Behin batean, hitz egiten zekien suge handi bat aurkitu
zuen.


—Zuk ezin duzu horrela jarraitu, alogerarik txikienik
ere irabazi gabe, emaztearen eta haurren lanetik bizitzen.
Ez, zu kapitaina eta itsasgizona izana. Zoaz ezagutzen
duzun untzigilearengana, agindu egin diezazula untzi eder
bat eta ordaindu eskatuko dizunaren bi halako.

Mahistruba untzigilea ikustera joan zen.

—Hamazortzi metroko untzia egin behar duzu, esan
zuen ausarki.

Gero, onartutako prezioaren halako bi eskaini zizkion.
Ondoren harkaitzetara itzuli zen lasterka, sugea aurkitu eta
egindako tratua berri ematera.

—Ongi dago —erantzun zion sugeak—. Zoaz orain
hamabi itsasgizon aurkitzera. Tori hori guztia egiteko dirua.





Mahistruba, joan Hendaiako portura, kontratatu hamabi itsasgizon ausart eta oso pozik hurbildu zitzaioan untzigileari ordaintzera; honek, harriturik halako maileguarekin, biziki ekin zion lanari. Sugearen aginduz kutxa bat ere eraiki zen sotoan.

Unea iritsi zenean, belak jasoak, itsasgizonak untzira-tuak, sugea kutxan sartu zen, inork ikusi gabe. Mahistrubaren agindupean itsasoratu zen untzia.

Kapitaina egunero joaten zen kutxara sugea bisitatzera. Itsasoaz eta untziez mintzatzen ziren, portu eta xede misteriotsuez.

Baina, goiz batean, sugeak esan zion itsasgizonari:

—Gauean ekaitz handia jaikiko da. Olatu eskergak izango dira. Alde guztietatik azalduko dira harkaitzak. Ez izutu. Gau erdian txori beltz handi bat igaroko da untzia gainera. Agindu itsasgizonik trebeenari hiltzeko.


Han joan zen Mahistruba itsasgizonengana beraien arteko tiralaririk trebeena nor zen galdezka.


—Neu, dio haietako batek, hegaz doan ainara ere hil nezake.

—Ederki, gauerdian, zubian jarriko zara; txori beltz bat ikusiko duzu, tiro egin eta hil ezazu.

Itsasoak eta lainoek bat egin zuten. Orroaka hasi zen ekaitza. Denak zeuden ikaratuta. Tiralaria gaixorik zegoenez gero, mastara lotu zuten bere fusilarekin.

Gauerdian, garrasi sarkor bat entzun zen. Untzi gainera igarotzen ari zen txoriarena zen. Ehiztariak tiratu eta hil egin zuen. Berehala baretu zen itsasoa eta ekaitza desagertu.







Kapitaina bizkor joan zen sugearengana txoria hilik zegoela esatera.

—Banekien —erantzun zion sugreak.

Egun batzuk geroago, untziak portu txiki bat ikusi zuen.

—Portu hori hurbil al dago? —galdetu zuen sugreak.

—Bai —erantzun zion itsasgizonak.

—Galde iezaiezu itsasgizonei ba al den korrikalari onik beraien artean. Norbait balego, esan horri igo dezala lasterka portu ondoan dagoen menditxoaren gailurrera. Han, atso oso zahar bat bizi den etxetxea aurkituko du. Kebideko gainleho gainean pizgailu bat, harlandu bat eta kaobazko kutxa bat daude. Ekar ditzala hiru gauza horiek, baina ez aldi berean. Banaka, egun desberdinetan.

Bazen itsasgizonen artean erbia bezain azkarra zen gizon gaztea. Korrika joan zen mendi gainera. Atso txiki bat zegoen eguzkitan eserita etxeke ate aurrean.


—Egarri naiz —esan zuen itsasgizonak—. Ez al duzu ur tanta bat?

—Ez —erantzun zion atsoak.

—Oso egarri naiz —errepikatu zuen korrikariak—, nik ez ditut ezagutzen lurralde honetako bideak eta gutxiago iturri eta ibaiak.

—Ongi —esan zuen atsoak—, begira, ur apur bat emango dizut.

Uneaz baliatuz itsasgizonak pizgailua eskuratu eta ihes egin zuen hanka jokoan, tximista bezain bizkor. Untzira sartu zen arte jarraitu zion atsoak. Atsoak kaparen zati bat moztu zion eta bizkarra urratu.





—Badugu pizgailua —joan zen Mahistruba sugeari esatera—, baina gure gizonak zauritua du bizkarra.

—Ez da larria, tori berehala sendatuko duen sendagaia. Itsasgizona haserre zen:

—Ez, bihar ni ez naiz itzuliko atso madarikatu hori ikustera. Deabrua bera da.

Baina biharamunean, guztiz sendaturik baitzegoen, onartu egin zuen itzultzea.

Oraingoan, itsasgizonak maukarik gabeko alkondara eta galtza zahar urratuak zeramatzan.

Atsoaren etxera iritsi eta bere untzia itsasperatu egin zela esan zion. Tximinian bere pipa piztea besterik ez zuela nahi. Mesede handia nuke hau.

—Ez —erantzun zion atsoak.

—Erruki zakizkit! Hain naiz zoritxarrekoa. Hori da eskatzen dizudan mesede txikia.


—Ez eta ez. Atzo iruzur egin zidaten. Aski dut horrekin.

—Mundu guztia ez da iruzurtia. Nirekin ez ezazu izan beldurrik.

Atsoak azkenean onartu egin zuen. Itsasgizonak uneaz baliatuz, harlanduaz jabetu eta ziztu bizian hanka egin zuen. Atsoa orpoak zapaltzen joan zitzaion ondoren itsasgizona untzian sartu zen arte. Atsoak galtzak eta bizkarra urratu zizkion itsasgizonari.

—Badugu harria —esan zion kapitainak sugeari—, baina itsasgizonak bizkarra du zauritua.

Sugeak bere sendagaia eman zion eta itsasgizona sendatu egin zen. Baina sekula santan ere atsoa ikustera ez itzultzekotan zebilen, oraingoan izu ikara sartu baitzion. Ez,





ez zen bera izango kutxa lapurtzera joango zena.

Biharamun goizean, baina, sasoi betean sentitzen zen korrikalaria.

Erdi biluzik jarri zen, itsasoan galdua izan bailitzan eta etxe aurrean aukitu zuen atsoa eguzkitan eserita.

Ogi zati bat eskatu zion.

—Ez —esan zuen atsoak—. Aldi honetan ez datozkit etsaiak besterik. Alde paretik, jarrai zeure bidean.

—Baina ogi zati bat besterik ez —errepikatu zuen itsasgizonak.

Etsi zuen azkenean atsoak eta ogi zati baten bila joan zen. Itsasgizonak horretaz baliatuz kaobazko kutxa hartu eta ospa egin zuen ziztu bizian. Atsoa jarraika zetorkion eta korrikalariak untzira jauzia egiten zuen une berean harra-patu zuen. Itsasgizonari oinazpia urratu zion.

Oraingoan ere itsasgizonak ihes egin zionez gero, atsoak oihuka esan zuen:

—Madarikatuak itsasgizon hau eta untziko guztiak.

Kapitaina sugearengana joan zen.

—Badugu kutxa baina itsasgizona hilik bezala dago.


—Hemen duzu zerez sendatu. Orain, egin kainoi des-kargak.

Kainoikadek zarata izugarria egin zuten.

Iritsi zen polizia eta gartzelara eraman zituen kapitaina eta itsasgizon denak.

—Ez izan beldurrik —esan zien Mahistrubak bere itsasgizonei—, bihar askatuko gaituzte.

Erregeak, amorru bizitan kainoikaden zaratarekin (hamazazpi urte ziren bere lurraldean tiroak egitea debekaturik





zegoela), untzia bisitatzea nahi izan zuen itsasgizonen fardeleria guztia jaso aurretik.


—Kanpotar hauek ez al zekiten nire aginduaren berri? —oihu egin zuen erregeak—. Banuen seme bat eta desagertu egin zen. Ezingo dut ahaztu.

Erregea igo zen untzira eta mutil gazte bat ikusi zuen zubian.

—Seme —oihu egiten du erregeak—. Zer egiten duzu hemen?

—Aita, —erantzun zion— entzun egonarriz nire historia. Sorgin zahar batek enkantatua egon nahiz hamazazpi urtez. Suge baten itxura nuen. Hendaiaiko harkaitzetan nengoela, egunero ikusten nuen Mahistruba kapitaina. Hari laguntzea pentsatu nuen nire zoriaren aurka joateko. Berari eskerrak lortu dut berriz giza itxura.

Erregeak kartzelatik aterarazi zituen Mahistruba eta bere itsasgizonak eta, haren semearen etorrera ospatzeko, jai handi batera gonbidatu zituen.






Urriloa eta lapurra

4

Badira zenbait aldiz istorio krudelak. Adu txarreko neskamearena bai noski. Baina zoriontsu sentitzen zara, badakizulako azkenean garaile aterako dela. Mendiben honela ematen da aspaldidanik.





Bi senar-emazte zahar, oihan itsuan galdutako gaztelu hondatu batean zeramatan beren bizimodua. Behartsuak ziren eta ez zuten neskame bat besterik.

Behin batean, senar-emazteak hirian geratu ziren. Neskamea bakarrik zegoen gazteluan. Oso beldurtia zenez, gaua iristean, sutondoan eseri zen gaua han igarotzeko asmotan. Egurrak erretzean iluntasuna nagusitu zen inguruaz, neskaren izu ikara handiagotuz. Ezin zuen lorik egin. Gauerdia baino zerbait berandutxoago, zurrumuru bat entzun zuen leihopean. Berehala pentsatu zuen han zituela lapurrak. Adi jarri zen.


—Nik urriloa¹ sartuko dut etxean —esan zuen batak.

—Horrela, lotan den neskamea loago geratuko da eta etxe guztia lapurtuko dugu —esan zuen bestea.

Botere hauek ditu giza itxurako sustrai honek: lo daudenak loago utzi eta erne daudenak erneago, hots, lapurrak batez ere. Noski, ez zekiten neskamea ere erne zegoela. Beraz, lapurrek katazulotik sartu zuten urriloa.

Neskameak alde batera utzi zituen bere beldurrak. Arinetan joan zen aizkora txiki baten bila eta multzo magikoa zeukan besoa ikustean, kolpe bakarrez moztu zuen.

¹ **Urriloa:** landare erroa, batzuetan giza esku edo gorputzaren itxura hartzen duena. Aspaldi zaharrenetatik erabiltzen zen sorginkerietan.





Lapurrak, atearen beste aldetik garrasi handia bota zuen; gero, konplizeek zauritua zaindu eta aldendu egin ziren. Gauak lasaia izaten jarraitu zuen eta neskameak hauspez utzi zituen beso moztua eta sustraia.

Biharamunean, nagusiak etortzean, gaueko pasadizoaren berri eman zien neskameak.

—Hona hemen urrilo eta guzti moztu dudan besoa.

—Zorigaitza, adu txarra —oihu egin zuen etxeoan-dreak—, lapurrak itzuli egingo dira eta mendekatzea nahiko dute.

—Bai —dio senarrak— horiek su emango diote etxeari eta bota egingo dute atea.


—Haiek ni hiltzea nahiko dute —jarraitu zuen neska-meak eta, bat-bateko izu ikararen menpe, bildu bere gauza apurrak eta lasterka aldendu zen gaztelutik.

Nagusiak ere, neskameza bezain izutuak, aldendu egin ziren gaztelutik. Etxe hutsak laster jo zuen lurra.

Neskamea beste gaztelu baztertuago batera joan zen. Bazen han bere adineko morroi bat eta elkarrekin ezkondu ziren. Alaba bat izan zuten.

Neskatoak zazpi urte zituela, amak, arratsalde batean, kontatu zion lehenbizikoz lehenago berari gertatua. Emakumea urriloaren sustrai bila joan zen, beti esku batean egoten zena. Entzuten ari zen senarra zuri jarri zen. Bera zen lapur haietako bat, besoa moztu zitzaionaren anaia.

Gorroto handia sentitu zuen, baina emaztea ez zen ezertaz konturatu.





Arratsalde batean gutun bat idatzi zion anaiari esanez, dagoeneko ez zuela maitatzen bere emaztea eta anaiaren mendekura uzten zuela.

Besamotza handik egun batzuetara iritsi zen gaztelura, kapa handi batez ongi bilduta zetorren eta sorora joan zen, lanean ziharduen anaiarengana.

Han zebilen zazpi urteko alabatxoa, zakurrarekin jolasean. Aitak aldendu zedila nahi zuen. Neskatoa han gertatzen zen konplot berria prestatzen ari ziren bi lapurrengandik ez urruti.

—Ongi ordainduko du neri besoa moztea —esan zuen kapadun gizonak bere besamotza jasota.

Alabatxoak ikusi egin zuen eta aitak agindu zionean lasterka amarengana joateko bazkari on bat presta zezala esatera, hanka jokoan aldendu zen.


—Ama —esan zuen iritsi zenean—, zuk besoa moztu zeniona aitaren anaia da. Esan dutenez, txiki-txiki egin eta irakiten ari den eltzera botako omen zaituzte.

Emakume gaixoak hilko zela pentsatu zuen. Beraz, senarraren anaia zuen berak eskua moztu ziona! Zalantzarik gabe, ziztu bizian joan zen jagoleei aditzen ematera eta txi-mistaren pare itzuli bazkaria prestatzera.

Bazkaria ona izan zen. Bi anaiak goratu zuten. Baina bukatu zenean, besamotzak bere besondoa erakutsi zuen, ordura arte kapapean ongi ezkutatua.

—Hauxe da mendekurako ordua —esan zuen—. Azken otoitza egiteko ordua duzu.


Baina jagoleak ezkutatuak zeuden ate ostean. Gaizki-leak hitz egin orduko, bi anaien gainera joan ziren eta kartzelan sartu zituzten.



Lapurrik handiena

5

Oso gogokoak dira Euskal Herrian lapurren istorioak. Kontalariek gogoko dute entzuleei beldurra sartzea. Atsegin dute parre eragitea ere. Baina...






Bazen aspaldi zahar haietan lapur bat Orozkon, Bizkaian. Egunero lapurtzen zuen balio handiko zerbait. Oso ongi ikasiak zituen bere amarruak, denek ezagutzen baitzuten, baina sekula ere ez zuten bete-betean harrapatzen; maltzurregia zen horretarako.

Lapur handia zen, baina baita dendari bikaina ere. Itxinako harpe batean zuen ezkutalekua; hor biltzen zuen ostutako guztia: urrezko piezak, eraztunak, belarritakoak, idunekoak, perlak... Egiazko altxorrak eta bere hartzuloak Ali Babaren kobaren antzekoa ematen zuen.

Noizbehinka, Orozkoko lapurra beste leku batzuetara joaten zen lanera, alde hartako jagoleak, bere gainera joateko prest zeudela, orpoak zapaltzen zizkiotela konturatzen zenean.

Ez zen jakiten nora zihoan. Dena den, egun batean zabaldu zen hilik agertu zela. Istorioak ez dio nola. Hirian pentsatzen zen, agian gehiegi jan eta indigestioz hilko zela. Beste batzuen ustez, zaldi gainetik eroriko zen. Beste





batzuek, berriz, esaten zuten, eta hau egia izan zitekeen, errepideetako beste lapurren batzuek sarraskitu zutela.

Berria Orozkora iritsi zenean, hiriko gizon guztiek erabaki zuten Itxinara joatea, haren altxorraz jabetzera.

Itxaropentsu abiatu ziren, mendi osoa arakatu zuten alde guztietatik, harperik txikienetan ere sartu ziren eta azkenean, ezer aurkitu gabe itzuli ziren beren etxeetara.

—Aurkitu duzue lapurrik handienaren altxorra? —galdetzen zieten.

Gizonek ezetza adierazten zuten buruarekin. Triste zetozen, ez zietelako egingo poltsikoak bitxiz beterik zekartzaten heroiei bezalako ongi etorria.

Baina kontua ez zen hor bukatu. Laster hasi ziren herri-ratzen altxorraren berri entzun zuten Bilboko «jaunak». Mapak zekartzaten, iparrorratzak, zeinu misteriotso ugariz markaturiko paperak, oso ziur ari zirela zirudien. Itxinara igo eta ordu gutxiren buruan aurkitu zuten harpe famatua.

Berria berehala zabaldu zen lurralde osoan. Denak ziruditen liluratuta. Batzuek lapurraren oinordeko egin nahi zuten beren burua, beste batzuek, eskuratzekoak ziren ondasunak lapurtutakoen oinordeko. Hartzuloaren inguruak begiluzez bete ziren.

Hartzuloan sartzea besterik ez zen falta eta gaizki ibili ziren lehen taldea eratzean.

Taldea sartu orduko, zarata beldurgarria entzun zen. Zezen basatiaren marrua bezalakoa.

Denak atera ziren izuak hartuta.

—Entzun al duzue? —galdetzen zioten elkarri.





—Bai —erantzun zuen norbaitek—, harpeko deabrua da.

—Hori ez da ezer —esan zuen beste batek—. Harpeetan haizearen zarata gero eta ikaragarriagoa gertatzen da.

—Tximista igaro da, ekaitza gertatu baita.

Mintzatu zen ausarta ere sartu zen harpean. Zenbait kuxkuxero ere ondoren joan zitzaizkion.

Sarreratik aldendu orduko, zezen izugarria azaldu zitzaien sudurretatik kea zeriola.

Abera lurra aztertzen hasi zen, gizonei erasotzeko asmo biziarekin.

Denak biratu eta korrika joan ziren irteerarantz.

—Nor zen? —galdetu zuen batek.

—Deabrua, ziur nago.

—Esan nizun ba nik!

—Agur gure altxorra. Sekula ere ezingo dugu aurkitu...

Denak itzuli ziren Orozkora.

Herriko zuhurrei galdetu zitzaien.


—Deabrua da, zalantzarik gabe, adarrak ditu eta kea botatzen du.

—Lapurraren altxorraren zaindaria da. Lapurraren itzala da. Altxorra zaintzen ari da.

—Ez, Mari da, bera da beste jeinuen buru; lurpea da haren egoitza. Ederra eta ahaltsua da, baina badu era guztietara azaltzeko ahalmena ere...

—Hemen dugu, orduan, Mariren ezkutalekua. Zerbait garrantzitsuaz galdetu behar zaionean, geu joango gatzazkio ikustera!

Beste batzuek, eszeptizismo handiagoz, esan zuten:





—Zezen hau bere itxituratik ihes egina da. Zuek izutu egin duzue...

Baina denetan zuhurrenak adierazpen hau egin zuen:

—Deabrua da, Mari, zezen galdua, lapurraren izpiritua. Etxera itzuli da eta pakean bizi dadin, bere hezurak ekarri behar dira.

Herriko jendea bidali zuten lapurraren hezurak biltzera; ekartzen ziren hezur guztiak harpearen sarreran utziko zituzten.

Gero bakoitza bere etxera itzuliko zen.

Gau hartan, suen inguruan, berritu egin ziren itxaropenak.


—Lapurra etxera itzuli da. Haren izpiritua itzali egin da. Aurrerantzean ez diezaguke ezerk ez inork debekatu haren altxorraz jabetzea.

Espedizio berria prestatu zen.

Harpean sartzen ausartu zirenek ez zuten entzun, oraingoan, zaratarik txikienik ere, harrietan ur-tantek egiten zuten hotsa soilik. Barrurago jo zuten, zuzendu beren argiak harpeko izkina batera eta, hantxe zeuden harribitxiak, urrezko piezak, zirtzileriarik bitxienak, idunekoak, dominak. Kutxa guztiak beteta.

Jai handia izan zen. Herriko jende guztia sartu zen harpera eta kutxa denak atera zituzten. Ez zen geratu monetarik txikienik ere.


Harpetik ateratzen ari zirela, parre algara handia entzun zuten. Zenbaitek lapurraren ahotsa ezagutu zuten. Kanporantz bizkorrago abiatu eta berriz ere ahots bera:





—Eskerrik asko nire altxorra ateratzeagatik. Ezin nuen neuk bakarrik egin.


Jada harpearen aurrean ez zegoen ez kutxa ez kaxarik txikienik ere. Denak desagertu ziren, lur gainean arrastorik txikienik ere utzi gabe.



Hamalau

6

Hamalau oso mutil gazte sendoa zen, aldi horretako mutikoentzat egiazko eredia. Berak bakarrik egiten zuen hamalau langilerena. Tartarorekin borrokatzean agertuko du bere indar handia. Joan zen gizaldian Larzabalen kontatzen zen istorio hau.





Bazen behin mutil oso sendo eta jatun handia, ezizenez Hamalau zeritzana. Saminez bizi ziren mutilaren gurasoak, ezin baitzuten ase semearen gosea, harik eta goiz batean, ez baitzuten ezer gehiago hari emateko, etxetik bidali egin zuten.

Hamalau zuzen joan zen bidean aurrera. Ibiliaren ibiliz, mutila gosetzen hasi eta herritar baten etxe aurrean geratu zen. Etxekoandreak galdetu zion:

—Nor zara zu?

—Hamalau.


—Nola Hamalau?

—Zerbitzariren baten premiarik al duzun jakin nahi nuke.

—Zalantzarik gabe, pozik hartuko genituzke batzuk uzta biltzeko. Badugu hamalaurentzako lana.

—Hamalau langile? Hauxe da nirea. Ez jarraitu bilaka, neuk bakarrik ebakiko dut bihar gari guztia. Ordez, presta iezadazu hamalau langileren gosaria.

Biharamunean, egunsentian, hartu igitaia eta sorora





joan zen. Etxekoandreak, tratu egin bezala, goizeko zazpi-retan eraman zion gosaria eta han aurkitu zuen Hamalau, belar gainean etzanda. Lana egin gabe zegoen.

—Horrela al da zure lana? Belar gainean ezer egin gabe egoteko alokatu al zaitugu? Hamalau langileren gosari eman dizut. Hemendik aldi batera lanaren bidezko zati bat egin gabe balego, joan zaitezke.

—Ez izan kezkarik, emakumea —erantzun zion Hamalauk—, zatoz eguerdian hamal Lauren bazkariarekin.

Emakumea, zerbait ahopean esan eta joan egin zen.

Hamalau, ongi gosalduta ondoren belar gainean etzan zen berriz ere. Goizeko hamaikak aldera, hartu igitaia eta gari-alorraren erdia moztu zuen.

Emakumea oso pozik joan zen. Bostak aldean etorriko zen berriz askariarekin.

Hamalau etzanda aurkitu zuen eta eguarditik aurrera alorrean ezer gehiagorik egin gabe.

Mutilak ez zion ezer esaten utzi.

—Zortzirak alderako gari guztia ebakita egongo da.


Lana bukatzean mutila bera joan zen afaria eskatzera.

Etxeko nagusiari, bidaia batetik etxeratu zenean, etxekoandreak Hamal Lauren lanaren eta gosearen berri eman zion.

—Bihar ikusiko da.

Garoa ebaki behar zen. Nagusiak eta morroiak astebete onerako lana izaten zuten. Hamalauk arratsalde bakarrean bukatu zuen garoa ebakitzea.

Aurrerantzean, Hamalau zen nahikoa lan guztietarako: Berak erein, aldatu, bildu, garbitu...





Beraz, nagusiek pentsatu zuten ez zuela gehiago hamalau langilek adina jan beharrik.

Bazuten etxaldetik oso urruti, hartzek eta otsoek maiz bisitatzen zuten baso bat.

Etxekoandreak esan zion Hamalauri:

—Zoaz bi behi eta gurdiaekin basoko egurra biltzera.

Hamalau, behiak uztartu eta basora joan zen. Oso bero zegoen. Mutila, behiak zuhaitz bati lotu eta, belar gainean etzan zen lo egiteko.

Esnatzean, ez zuen behi bat besterik ikusi. «Hartzak izan dira bat jan didatenak» esan zion bere buruari. Bila abiatu eta hartz handi bat aurkitu zuen lo. Mutilak bi belarrietatik oratu, gurdia onдора ekarri eta nola edo hala gurdia lotu zuen gurdia egurrez bete arte. Ondoren, etxealdera itzuli zen.


Bideko jendeek, asaldaturik, hartza askatzeko eskatzen zioten, mendira itzul zedin.

—Ez —erantzuten zuen Hamalauk—, behi bat jan du eta haren ordezkoa egin behar ditu.

Hurrengo goizean, berriz ere mendira itzuli zen hartzarekin eta bigarren behiarekin. Oso gustora etzan eta lo egin zuen belar gainean. Esnatzerakoan ez zuen behirik ikusi. Hartzak izan dira jan dutenak. Bila atera eta bigarren bati oratu zion belarrietatik. Gurdia egurrez bete ondoren, hirira itzuli zen hartz uztarri batekin.

Etxeko nagusiak erabat harritu ziren.

—Hartzak ere hegazitxoak bezala manejatzen ditu. Nora iritsiko ote da? Ezingo dugu ezer egin bere aurka, berarekin aspertzen bagara.





Handik ez oso urruti Tartaro bizi zen, oso aberatsa, lurraldeko behirik onenen jabea. Gorroto zien gizakiei eta jan egiten zituen aurkitzen zituenak.

Begira zer pentsatu zuten nagusiek Hamalaren eskue-tatik libratzeko:

—Behi premian gaude; zoaz, Tartaro ikusi eta berari batzuk erosi.

Hamalau ados zegoen, eta Tartaroren etxera joan zen. Honek esan zion:

—Aukeran nire behi uztarririk onena emango dizut jokoan irabazten badidazu.

—Zein da zure jokoa?

—Nork urrutirago bota burdin haga astuna.


Tartarok bazekien gizakiak beti izan zirela joko honetan menderatuak, eta ondoren jan ahal izaten zituela.

Hamalauk jokoa onartu eta berak bota zuen urrutirago burdin haga astuna. Guztiz nahigabetu zen Tartaro. Erre-bantxa hartzeko itxaropenez, borrokaldi bat proposatu zion. Elkarri oratu eta ondoren batak bestea lurrera botatzen saiatuko ziren. Hamalauk azpira bota zuen. Tartarok bizia ez kentzeko eskatzen zion apaltasunez.

Gaztea oso harro itzuli zen landetxera.

—Ah! Zuek behi onak nahi dituzue? Zer deritzazue hauei?

Nagusiek ikusirik mutilak menderatu egin zuela Tartaro, beldur handiagoa hartu zioten. Baina, disimulaturik beren beldurra, esan zioten:





—Zuk lur gainean ez diezu beldurrik ez animaliei, ez gizakiei. Baina deabruari? Bada, hain zuzen ere, hari emateko mezu bat.

—Emaidazu mezu hori, neu arduratuko naiz deabruari eramateaz. Nik ez diot beldurrik.

Deabruarengana joateko, Hamalauk errementariari agindu zion kurrika handi batzuk eta burdinazko makila bat egiteko.


Horrela armaturik, han joan zen deabruaren atea jotzera. Deabru zaharra atera zen:


—Ah! Hara hemen Hamalau, entzuna nuen zutaz mintzatzen, eta luzaro egon naiz zu ezagutzeko asmotan. Aurre-rantzean inor ez da zutaz mintzatuko.

Deabruak Hamalauren gainera jauzia egin zuen, baina mutila erasoaren zain zegoen. Kurrikekin oratu deabruari sudurretik eta ez zion uzten ikararik egiten. Burdinazko makilarekin hankak hautsi zizkion.

Deabrua ere menderatu ondoren, lasai itzuli zen landetxera.

Nagusiek ikusirik alferrik zirela Hamalaurengandik libratzeko ahaleginak, eta haurrik ez zutenez gero, semetzat hartu eta hirurak oso zoriontsu bizi izan ziren.






Tartaro eta Gizontxo

7

Euskaldunek oso maite zituzten beren elezaharrak, baina zailtasunik gabe egokitu zituzten antzinako mitologiatik jasotako kontakizunak, baita Perrault edo Grimm-enak ere. Grimm-enak ere. Hona hemen Tartaro, begi bakarreko ogro baten ipuina. Pertsonaia zakar eta gaizkin zenbait kontakizun klasikotan batzuetan ziklope erara agertzen da.





Lehenago, familiarik gehienak pobreak ziren, gehienek zituzten haurrak. Gurasoek ez zekiten zer egin beren txikiak elikatzeko, hazi ahala geroago eta gose handiagoa baitzuten.

Hau zen Gizontxoren kasua. Familia bateko zortzigarren semea zen, eta bereziki denetan zuhurrena. Bere anaiak idien pare aritzen ziren lanean soroan; berak entzun eta pentsatu egiten zuen.

Loak hartu ezin zuen gau batean, ahopeka mintzatzen ari ziren gurasoei entzun zien:

—Guk ez dugu deus gehiagorik jateko, —esan zuen amak.

—Bihar, nik basora eramango ditut.

Biharamun goizean, familia osoa joan zen hartz eta otsoz beterik zegoen basora. Hosto eta enborrez basoa itsuena zen unean desagertu ziren gurasoak eta han utzi zituzten haur erotuak. Iritsi zen gaua eta han jarraitu zuten, gizagaixoak, bata bestearen ondoan deika eta negarrez.





Gizontxok ez zuen bururik galdu: zuhaitz baten puntara igo zen eta argi bat ikusi zuen. Zuhaitzetik jaitsi eta argi hartarantz gidatu zituen bere senideak.

Tartaro baten etxea zen.

Jo zuten atea eta neskame bat etorri zen irekitzera.

—Gaua igaro al dezakegu hemengo babesean?

—Ene haurrak —esan zien neskameak—, hobe izango duzue ahalik urrutien aldentzea, Tartarok, nire nagusiak, jan egiten baititu haurrak.

Gizontxok ez zuen etsitzen:

—Bazter batean ezkutatuko gara!

Beraz, ogroaren etxean sartu eta ezkutatu egin ziren.

Tartaro iritsi eta alde guztietan usainka hasi zen.

—Haur usaina nabaritzen dut —esan zuen ahots bel-durgarriz.

Neskame erotuak aitortu zuen berak ireki ziela atea zortzi haur errukarri.


—Bihar bazkaltzen jango ditut. Ongi erreak nahi ditut.

Honen ondoren, aulki batean etzan zen sutondoan eta loak hartu zuen.

Gizontxok ogroa lo ikustean, hurbildu, hartu galtzerdi-orratza eta zulatu egin zuen Tartarok kopetan zuen begi bakarra. Itsutua oihuka eta aienaka hasi zen, baina oso nahasia aurkitzen zen; ez zekien nola jokatu aurrerantzean.

Gizontxok patiora gidatu zituen anaiak eta bakoitzari ahari bana larruarazi zion. Denak jantzi ziren ahari larruz.

Biharamun goizean, Tartaroitsuak, bere ahariak ateratzea nahi zuen. Gizontxok anaiak atera zituen lehenak eta





bera irtengo zen azken; berak zeraman arrana. Tartarok, igarotzen zen ahari bakoitza haztatzen baitzuen, berehala harrapatu zuen bere ahari bulunbaria. Gizontxok, ordea, zuhur jokatu, larrua eskuetan utzi eta hanka egin zuen.

Tartarok, ondoren joatean bazter guztiak jotzen zituen: —Irabazi duzu! —oihu egin zuen—. Garaipenaren gomuta izango duzun eraztun hau emango dizut.

Eta eraztuna bota zion.

Gizontxori oso ederra iruditu zitzaion eta baita atzaparreen jarri ere.

Baina eraztuna deika hasi zen:

—Hemendik! Hemendik!

Tartarok bazekien nondik joan eta jauzia egin zuen Gizontxo harrapatzeko asmoz.


Mutikoak, ordea, azpijokoaz konturaturik, erre kara bota zuen eraztuna.

Eraztunak berean jarraitu zuen:

—Hemendik! Hemendik!

Tartaro erre kara oldartu eta ito egin zen.


Gizontxo Tartaroren etxera itzuli zen eta neskameari zaku bete urre eskatu zion. Zerbitzariak baita gogoz eman ere, eta horrela itzuli zen Gizontxo bere anaiekin gurasoen etxera, hain aberats izatearekin oso pozik.



Anxo eta unaiak

8

Anxo, edo Basajauna, jaun basatia da, erraldoi iletua, basoetan bizi da, baina gizakiengandik hurbil. Batzuetan mesederako — abeltaldeak babestu eta ekaitza datorrenean unaiari aditzera ematen die—, inoiz axolagabe edo gaizkin ere bilaka daiteke.





Behin batean, Ezterenzubitik gertu, Espainia eta Frantziaren arteko mugan, lau unai gazte elkartu ziren arratsaldean behe-suaren inguruan, gero lo egingo zuten tapaki lodipean. Horrelakoetan, Basajauna ere etorri ohi zen haiekin batera berotzera. Ondoren, jan egiten zuen beretzat utzitako otamena.

Unaiiek aspaldi zaharreko ohitura zuten ogia, esnea eta zenbait fruitu heldu uztea.

— Esaten zenez, hura zen Anxoren partea.

Gau batean, unairik gazteena konturatu zen besteek ez zutela ohitura bete.


—Non utzi duzue Anxoren partea? —galdetu zien.

—Emaiozu zeuretik nahi baduzu —erantzun zioten besteek.

Gazteak betiko oholaren gainean utzi zuen bere partea.

Denak oheratu zirenean, beti bezala iritsi zen jaun basatia.

Berotu ondoren, mutikoak utzia jan zuen.





Joan aurretik, janaria utzi zionaren arropa salbu, beste guztienak eraman egin zituen.

Gau horretan, hain zuzen ere, elur handia erori zen. Unaiak jaikitzean oso haserre jarri ziren beren arroparik aurkitu ez zutenean. Basajaunaz gogoratu eta eskatu zioten gazteenari:

—Zoaz gure arropen bila.

—Ez.

—Erregu egiten dizugu.

Horrek beste zerbait ere esan nahi baitzuen, hobe zen onartzea.

—Zer sari emango didazue?

Bazen larrean inork nahi ez zuen aratxe argal eta zahar bat.

—Aratxe zahar argala.

—Bai —erantzun zuen gazteak—, banoa zuen arropen bila.

Basajauna bizi zen harpera joan zen mutil gaztea.

Urrutitik deadar egin zuen:

—Anxo, emaizkidazu nire laguneren arropak!


—Ez, ez dituzu hartuko.

—Emaizkidazu, mesedez. Bila bidali naute eta eramaten ez badituz jo egingo naute.

—Zer eskaini dizute lanaren truke?

—Inork nahi ez duen aretxe zaharra.

Basajauna algaraka hasi zen; ibar guztian zehar zabaldu zen parrearen oihartzuna.





Harpeko atakan agertu eta gauean ekarritako arropa guztiak jaurtiki zituen.

—Har itzazu ba —esan zuen jaun basatiak—. Eta har ezazu urritz makila hau ere. Berarekin baliatuko zara aratxea markatzeko. Emaizkiozu ehun kolpe txiki eta bat handiagoa.

Etorri zen gaztea arrokekin eta lasterka joan zen belardi barrenera bere aratxea aurkitzera.

Ehun kolpetxo eta handitxoago bat eman zizkion.

Aldi laburrera, aretxeak ehun eta bat txahal eder zituen.


Unai gaztea aurrerantzean, Basajaunari eskerrak, bestiak baino aberatsagoa izan zen, aldi honetan gizakien zereginez arduratzen baitzen.



Nola libratu Basajaunarengandik

9

Basajauna, jaun basatia, etengabeko jardunean ari den erraldoi iletua da. Maiz gaiztoa da eta bere hartzulora eramaten ditu gogoko ez dituen jendeak.





Kontua etxe txiki pobre batean hasten da. Tximiniaren aurrean gizon gazte bat dago eta honen aurrean alargun zahar bat, mutilaren ama. Hasperenka ari dira bata eta bestea.

—Zeuk ikusi, ia ezin gara bizi. Zu, geroago eta esne gutxiago ematen duen ahuntzarekin eta ni geroago eta arrain gutxiago harrapatzen dituzten nire amuekin. Lagundu ordez, zama natzaizu.

Ama isilik dago, suari begira.

—Erabakia dut —jarraitu zuen mutilak— joan egingo naiz morroi hartuko nauen jaun aberatsen baten bila.

Ama alargunak negar pixka bat egin zuen, baina bazekien semeak arrazoia zuela eta joaten utzi zion.

Mutil gaztea ibai ertzeraino jaitsi eta abiatu zen bere abenturan. Gaztelu eder batera iritsi eta ausardiaz sartu zen zabalik zeuzkan ate handietatik. Ez zen inor ageri. Gela desberdinetatik ibili zen. Iritsi jangelara eta mahai gainean sekulako bazkaria aterata zegoen.





Afalordurako norbait agertuko zen ustetan, eseri egin zen ezer ukitu gabe. Ez zetorren inor. Inor ere ez.

Etsita, gela bat ikustera joan zen, ea norbait lotan edo aurkitzen ote zuen. Inor ere ez. Nekatuta, ohe gainean etzan eta erdi lo geratu zen.

Gauerdi inguruan edo esnatu zen. Neskatxa eder bat sartu zitzaion gelan. Harriturik, esan zion arrantzaleari:

—Ez dakizu non zauden. Arrisku handian zaude. Basajauna da gazteluko nagusia, eta ikusten bazaitu, jan egingo zaitu.

—Nola da Basajaunak gizakiak jaten dituen hori? Eta jada zeu zergatik ez zaitu jan?

—Hobe nukkeen jan banindu! Bahitu egin ninduen neure gurasoen etxetik eta neskame nauka...

Baina gazteluko ate handiak zabalik daude, esan zuen mutil gazteak. Ez duzu oztoporik ihes egiteko.

—Gaztelura sartu, bakoitza bere borondatez sartzen da; baina sartu denak zail du irtetea. Basajaunak alde guztietan ditu zelatariak.

Neska ederra irizten zion arrantzaleak esan zion:

—Lagundu egin nahi nizuke. Esaidazu zer egin behar dudan.

Neskak luzaro pentsatu zuen azkenean erantzuteko:

—Bide bakarra Basajauna hiltzea da, baina ezin izan dute ez gizonak ez emakumeek. Berdingabea da Basajaunaren basakeria. Modu bakarra dago horrengandik askatzeko eta esan egingo dizut. Gaztelu honetatik aski aparte, harpe batean, Herensuge bizi da, dragoi antzekoa. Altuera eta indar beldurgarria ditu. Basajaunari bizia kendu nahi dionak





Herensuge akabatu behar du lehenengo. Dragoia akabatu ondoren, sabela ireki behar zaio. Sabeletik erbi bat aterako zaio, parerik gabeko abiadan. Erbia baino bizkorragoa izan behar duzu, harrapatu eta sabela ebakitzeko. Erbiaren sabeletik usoa aterako da. Ehizatu egin behar duzu hegaz doan usoa eta sabela ireki. Han, sabelean, bi arrautza aurkituko dituzu... Arrautza horietako batekin jo behar da Basajauna kopetan, horrela hilko da.

—Bada zailtasunik —esaten du arrantzaleak—, ez dakit froga guzti hauek gaindituko ditudan. Adore guztiarekin saiatuko naiz. Eta garaile ateratzen banaiz, zu Basajaunarengandik askatzea izango da nire saria.

Erabakia hartuta, egunsentian abiatu zen gaztelutik mutil gaztea. Mika bat aurkitu zuen eta Herensuge non bizi zen galdetu zion.

—Segi aurrera, nik ez dakit zertaz ari zaren.

Geroxeago, belea aurkitu zuen, honek ere erantzun berdina emateko.

Aurreraxeago, arrano bat aurkitu zuen.

—Ezagutzen dut Herensuge ezkutatzen den ibarra eta gaur goizean ikusi dut gainera. Baina oso urruti dago bi oin besterik ez dituenarentzat. Dragoi horren kontra borrokatzeko asmotan bazabiltza, eseri nire bizkar gainean. Hori da zure alde egin dezakedan guztia.

Mutil gaztea eseri zen arranoaren bizkarrean eta gora igo zen baso eta aintzira handien gainetik. Arranoa ibai ertzean jaitsi zen lurrera.

—Jarraitu orain ibai honi eta laster iritsiko zara harpera. Arrantzaleak, ibai ertzean gora abiatu eta bidean,







eztabaida bizian aurkitu zituen ahari iztarra zela eta hartza, erbi-zakurra, belea eta inurria. Iztar hori lau abereen artean zuzenki banatzeaz ari ziren, baina ezin ziren ados jarri.

Mutil gazteak atera bere labana eta lau zati egin zuen, kontuan izanik animalia bakoitzaren neurria eta jateko gogoia. Denak oso pozik geratu ziren eta eskerrona azaldu nahi izan zioten.

Hartzak bere ileen eskutada bat eman zion.

—Gorde arretaz —esan zion—. Premian aurkitzean, pentsa ezazu niregan. Orduan, larrua koraza, erpeak eta hortzak ezpatak dituen hartza etorriko da zuregana.

—Tori luma hau, esan zuen beleak. Gordetzen duzun bitartean aski izango duzu hego handiak bizkarrean eduki nahi izatea hegaz aidean joateko. Beste biek ere opari bana egin zioten arrantzaleari: erbi-zakurrak bizkor ibiltzea eta inurriak guztiz txiki bihurtzea.

Harpera hurbildu zen mutil gaztea. Herensuge, oinotsak entzun eta bere buztanez hasi zen sasiak astintzen, borrokarako prest.

Mustroak gizona itxaroten zuen etsai, baina hartza zen aurrean zeukana, hartz eskerga, aho izugarria zabalik. Hasi zen borroka beldurgarria. Lau egun baino gehiago iraun zuen eta bukaera ezezaguna zen azkenera arte.

Hartza gertatu zen, azkenean, garaile: Herensugeri oratu eta ito egin zuen. Hartz eskerga han joan zen mutil gaztearengana. Honek labanaz ireki zuen dragoiaren sabela. Erbia atera zen sigi-saga ihesik. Mutil gazteak, erbi-zakur bihurturik





harrapatu egin zuen. Erbiaren sabela irekitzean usoa atera eta lainoetara abiatu zen hegaz. Hego handidun bele bihurtuta, arrantzaleak harrapatu egin zuen usoa eta haren sabelean aurkitu zituen Basajauna hiltzeko arrautzak.

Berehala barreiatu zen lurralde osoan Basajaunaren heriotzaren berri. Erregeak ere ezagutu nahi zuen heroia eta bere alaba eskaini zion emazte, baina arrantzaleak ezetza eman zuen. Berriz ere bele bihurturik, baso eta aintziren gainetik joan zen hegaz. Gaztelura itzultzea eta Basajaunaren neskamea askatzean zuen amets bakarra.

Bost egunen buruan, gazteluko ate handi zabalduetatik sartu eta neskatilaren ohean etzan zen. Etzan besterik ez, Basajauna ere etxera iritsi zen. Arrantzaleak garbi entzun zituen basatiaren oinotsak ate ondoan. Berehala inurri bihurtu zen.


Gelaz gela ibili zen Basajauna gizaki usaina hartuta. Ongi arakatu ondoren, ezer ez aurkitzean, baretu egin zen.

Basajauna aldendu zenerako inurria berriz ere mutil gaztea zen. Orduantxe iritsi zen neskatxa ere bere gelara.

Neskatxa poztu egin zen arrantzalearen garaipenarekin.

—Azken froga besterik ez da geratzen —esan zion neskak—. Baliteke zailena izatea. Begira egin behar duzuna: Bihar, eguzkia ateratzean, lorategira joango naiz, beti bezala, haritz handiaren itzalean Basajaunaren ilea orraztera. Ezkuta zaitetz ondo hosto artean eta utzi arrautzak haren kopeta gainera erortzen.


Mutil gaztea hosto artean ezkutatu zen. Dena gertatu zen neskak esan bezala. Horrela hil zen Basajauna. Handik





NOLA LIBRATU BASAJAUNARENGANDIK

aurrera, arrantzalea eta neska ederra elkarrekin ezkondu eta gazteluan bizi izan ziren. Hara eraman zuten mutilaren ama zaharra ere.






Lamia eta hargina

10

Laminak (lamia bat) jeinu txikiak dira, maiz emaztekiak, hartzulo, zubipe, urmaeletan bizi direnak. Eder eta irtirinak, gauaz grinaturik iturri ondoetan igaro nahi izaten dituzte. Gorroto diote eguzkiaren argiari. Orokorrean harreman onak dituzte gizakiekin, baina ez dute onartzen inork gogaitarazterik.





Duela urte-meta handia, ba omen zen hargin bat. Egun osoa ematen zuen harkaitza zatika mozten. Gero, harriak idi bakarreko gurdi batean eramaten zituen etxeren bat eraikitzen ari ziren lekura.

Astuna zen guneroko lan hau, batez ere neketsua.

Hargina mozten ari zen harkaitzetik ez oso urruti, lamia lirain bat bizi zen.

—Hau lanaren gogorra! —erostaka ari zen hargina.

—Zer egin dezaket zure alde? —galdetu zion egun batean lamiak—. Zu zoriontsu izatea nahiko nuke, zuk berriz negarrez jardun beharrik ez izatea!

—Ongi! Egin nazazu aberats!

Hargina berehala izan zen aberatsa. Etxe apainean bizi zen. Egunero zituen mahaiian janari onak, haragia eta ardoa ugari. Ez zuen harkaitzari atalak mozten ibili beharrik, baina ez zekien zer egin bere aisialdiarekin.

Halako batean, berriz ikusi zuen lamia. Esan zionez ez omen zen nahi adina zoriontsu.

—Aberatsena izan nahi nuke —gehitu zuen.

—Nor da, zure ustez, aberatsena?

—Enperadorea.

Lamiak enperadore bihurtu zuen hargina.





Orain jauregi batean bizi zen. Egun bakoitzean gela desberdinean egiten zuen lo, lorategi itzaltsu eta iturriz beteetan ibiltzen zen, oturuntz bikainak zituen bata bestearen ondoren. Inork ez zuen aspertzen inperioko gertaerekin. Ministrariak zituen horretarako. Baina ez zen enperadoreetan zorionsuena.

Behin batean, lorategian zegoela, eguzkiari begira jarri zen hargina. Eguzkia zegoen alde guztietan landare, harriarte eta mendien gainean. Gogoeta egin eta, bai, merezi zuen eguzkia izatea.

Lamiarengana joan eta eguzkia izan nahia adierazi zion.

—Ongi —izan zen lamiaren erantzuna—, eguzkia izango zara.

Hargina oso pozik zebilen eguzki bihurtuta. Munduko bazterrik txikienetaraino iritsi zen. Egun batean, lurralde zabaletan zehar ibili eta atseginez ikusten zituen loreak ernetzen, fruituak umotzen, gizakiak hazten.

—Guzti hori neronek egin da —esaten zion harro bere buruari—. Enperadore izatea baino interesgarriagoa da eguzki izatea.

Baina halako batean, hodei bat kokatu zen eguzkiaren eta lurraren bitartean. Eguzkia ilundu egin zen. Pentsatu zuen: ez da aski eguzkia izatea. Hobe dut hodei izatea. Eta hargina lamiarekin hitz egitera joan zen.

—Ez dut gehiago eguzki izan nahi, hodei izan nahi dut.

Lamiak ez zion eskatu aldaketaren arrazoirik; eta lehengo hargina hodei bihurtu zuen.

Hodeiak euri handiak isuri zituen lurraren gainera. Itsasora joaten zen ura zurrupatzera eta erauntsietan, zaparra-





detan husten zuen sabela bere gogoaren arabera. Denen gorrotagarri bilakatzeraino iritsi zen. Beldurra zioten denek. Baina alde guztietara iristen zen inoren eragozpenik gabe.

Baina egun batean, harkaitz handi bati begira geratu zen. Han zegoen hura zutik, irmo, urari jaramonik ere egin gabe. Harritu egin zuen harkaitzak eta lamiarengana joan zen.

—Aurrerantzean, harkaitz izan nahi dut.

Lamiak deusik galdetu gabe, harkaitz bihurtu zuen.

Goiz eder batean, oinazetxo bat sentitu zuen orpoan. Begiratu zer gertatzen zen eta, han behean, gizontxo bat ari zitzaion harri atalak mozten. Han ari zen mailuaren laguntzaz puskak bata bestearen ondoren atera eta idi bakarreko gurdira jasotzen.

Lamiarengana joan zen.

—Hemen zara berriz ere!

—Bai —esan zion hargin ohiak.

—Zer izan nahi duzu orain?

—Gizon horren modukoa! Mailu batez atalak mozten baitizkit.


—Baina hargina da eta! —esan zuen lamiak irriz.

—Hargin izan nahi dut, harria lantzea.

Gizona berriz ere hargin izan zen.

—Aurreratua eta argia ikusten zaitut —esan zion lamiak—. Nire ustez, bakoitza bere lekuan mantentzea da onena: zu hargin eta ni lamia.


Ondoren desagertu egin zen hura eta gauzak ez ziren aldatu gehiago.



Lamia eta erdi-hurrena

11

Hona hemen joan zen mendean Eskiulan kontatzen zen istorioa. Lamiak, maitagarri, iratxo eta inguma itxurako izaki txiki horiek sartzzen dira jokoan. Hemen, Euskal Herrian, maitagarriengandik hurbilagoak dira.





Donibane bezpera zen, egunsentia. Margarita, Gorritipe baserriko etxeckoandrea, jaikia zebilen segalarientzat gosaria prestatzeko. Ogia labean zegoen, hura usain gozoa hedatzen zuena!

Atea poliki ireki eta neska lirain bat azaldu zen.

—Egun on, Margarita —esan zuen lasaitasunez—, mesedez, zatoz nirekin. Emakume erdi-hurren bat dago laguntza premian zure basoan.

Margaritak, harriduraz:

—Nire basoan? Nor da emakume hori? Eta zu, nik ez zaitut ezagutzen!

—Ez izan beldurrik. Esango dizut nor naizen. Baina, orain presa dago; zatoz berehala, mesedez.

—Baina ni ezin naiz atera etxetik une honetan, segalarien gosaria prestatu behar dut.

—Jarrai iezadazu, mesedez. Ez zara damutuko. Zure zoria egina dago haur honi laguntzen badiozu jaiotzen.

Margarita eta gazte misteriotsua, belardia igaro eta basoan sartu ziren.

—Hau da nire basoa, dio Margaritak, eguzkia jaiki aurretik hara iristeaz harrituta.





—Entzun, tori makila hau eta jo ezazu lurra.

Margaritak jo zuen lurra eta etxe-atari bat azaldu zen. Atea berez zabaldu zitzaien eta etorbide ureztatu eta itzaltsutik igaro ziren. Gaztelu distiratsu bat aurkitu zuten. Eguzkitan bezala argiz betea.

—Ez izan beldurrik, Margarita. Iritsi gara.

Sartu egin ziren. Gelak bikainak, lore txirikorda eta bitxiez hornituak. Denetan ederrenean, ohe handi batean, lamia bat. Ohea izaki txikiz inguratua zegoen, denak geldi eta isilik. Margarita, lamiarengana hurbildu zen eta bazekien zer zen bere egitekoa.

Dena bukatu eta lamia txiki berri batek bere lehen garrasia eman zuenerako mundu honetan, Margarita jangela handi eder batera eraman eta gosari zoragarria eskaini zioten: ogi elurra bezain zuria, eguzki errainuen antzeko ezti argia, gisats lore heldu, basamarrubi eta hazi errez egindako buñueloak.

—Oso gozoa —dio Margaritak hasperen bat eginez—. Baina etxera itzuli behar dut; berandu dela pentsatzen dut.


—Bai —erantzun zion lamia gazteak— neronek gidatuko zaitut, hori nahi duzunez gero.

Atera gaztelutik eta zuzen joan ziren harizpeko etorbidetik atarira iritsi arte.

Ateak ez zuen ireki nahi.

Lamia gazteak eta Margaritak indarra erabili zuten. Alferrik.

—Badakit zer duen —esan zuen lamia gazteak—. Gure etxeko zerbait daramazu zuk.





—Bai —erantzun zuen Margaritak—, ogi zuri pusketa-txo bat, neure buruari ziurtatzeko ez dudala amets egin, eta neure familiari erakusteko honen edertasuna.

—Hemen utzi behar duzu.

Margaritak sartu eskua bere poltsikoan eta atera zuen ogi pusketatxoa. Lamiak errekatxo batera bota zuen.

Atea berez ireki zen.

—Tori zeure ordaina, Margarita. Har ezazu urrezko sagar hau. Ez esan ezer inori. Ezkutatu zeure kuxtaren sakonenean. Egunero aurkituko duzu sagarraren ondoan urrezko diru pilotxoa.

Margarita oso bizi itzuli zen etxera. Segalariak ez ziren esnatu oraindik. Ezkutatu sagarra kuxtaren barrenean eta gosaria prestatu zuen, ezer jazo ez bailitzan.

Eguna luzea izan zen, zarata eta hautsez betea eguzki galdapean. Arratsaldea behe-raka zihoan moztutako belar-
ren usain gozo artean.

Biharamun goizean, esnatzearekin batera, han joan zen Margarita kuxtari begiratzera. Sagarraren ondoan urrezko diru pilo polita zegoen.


Goizero zen berdin. Erraz ordaindu zituzten etxeko zorrak, baina Margaritaren senarra errezelotan hasi zen.

—Nondik duzu zuk diru guzti hori? —galdetzen zion etengabe.

—Ezin dizut esan.

Azkenean, bakeagatik, eman egin zion isilekoaren berri.


Hurrengo gauean ez zegoen urrezko dirurik sagarraren ondoan, kuxtaren barrenean.



Lamiak eta gizonak

12

Lamiak igeltsero oso on eta azkarrak izan daitezke: begira lehenengo nola eraiki zuten Arrozeko eliza mendiskaren gailurrean, eta Ligi-Athereiko zubia, jendeak hain gogoko zuena.





ARROZEKO ELIZA

Herriko jendeak eliza bat nahi zuen. Garai batean hori zen moda. Eliza herriaren erdialdean, plazatxoaren erdian. Etxeetatik aterez batera hara hurbiltzeko eran.

Eraikuntzarako gaiak biltzea erabaki zuten: harriak, habeak, zurabeak. Baina sekula ere ez zen behar beste.

Izan ere, lamiek eraman egiten zituzten, eta inork ez zekien nora, kostata gurdika pilatutako harri eta habeak.


Arrozeko biztanleak, jakinminez, bilaka hasi ziren, ea non ezkutatzen zituzten lamiek material haiek eta handia izan zen beren harridura mendiskaren gailurrenean aurkitzean.

Biharamunean, bileran biziki eztabaidatu zen:

—Geuri dagokigu erabakitzea, eta ez lamiei.

—Lamiarik gabe ezingo da ezer egin.

—Horiek desegin egingo digute eraikitako lana.





—Zergatik erabaki dute guri sofriaraztea?

—Ezin gaitezke lamia horien eskuetatik askatu, denak bahituta?

—Gaitzik egiten bazaie, gure kontra hasiko dira jo eta su.

—Bai, inguruko bailaretako lamiak etorriko dira mendekua hartzera...

Eta horrela, Arrozeko biztanleak lur jota zeuden bilera-
ren ondoren. Gehiago ez mugitzea erabaki zuten, lamiek
egin zezatela dena.

Egun horretan, hain zuzen ere, ekarria zuten habe
nagusia, elizako gailurra izan behar zuena.

—Ni hemen geratuko naiz, habearen gainean —esan
zuen arrozetar adoretsuenak—. Neuk esango diet zer pen-
tsatzen dudan.

Habearen gainean eseri zen. Gaua poliki etorri zen. Izar
batzuk agertu ziren zeruan eta jagolea loak hartu zuen.

Orduan agertu ziren lamiak.

—Gu harrapatu nahi gintuzun, ezta? Ongi, geuk harra-
patzen zaitugu orain.

Hartu gizona lotan zegoen habea eta mendiska gailu-
rreara eraman zuten.

Gau osoan aritu ziren lanean eta harrizko hormak jaso
ondoren, gainean jarri zuten habea eta oso bikain estali
arbel urdinez.

Gizona esnatzean, harri eta zur geratu zen bere burua
eliza berriaren teilatu gainean aurkituta.

Lamiek lan ona egin zutela eta, arrozetarrek amore
eman zuten eta han dago eliza mendiskaren gainean.





LIGI-ATHEREIKO ZUBIA

Ligi-Athereiko biztanleek zubia nahi zuten erreka gainean aspaldien-aspaldienetik. Ezin zituzten igaro hango ur bular-tuak eta inork ez zuen eraiki nahi zubi hori.

—Lamiekin eztabaidatu behar da. Baliteke beraiek lanerako prest egotea.

Ligiar batzorde bat joan zen belardi batera lamiekin mintzatzera.

Ez zuten luzaro eztabaidatu:


—Geuk eraikiko dizuegu zubia —esan zuten lamiek— harlandu sendoz; zaudete ziur. Bihar gauean ekingo diogu lanari eta bukatua egongo da goizean oilarrak jo aurretik.

Ligiarrak zurtuta geratu ziren hitz horrekin.

—Baldintza bakar batekin —gehitu zuten lamiek.

—Zer?

—Ordainsaritzat eman diezaguzuela Ligi-Athereiko neskarik ederrena.





Hura izan zen espantua. Aldi hartan Ligi-Athereiko neskarik ederrena Marion zen, eta eguna bezala zuten maite, udaberria bezala. Hura ezin zitekeen eman ordainsari!

Beste irtenbiderik ez zegoenez, ados zeudela esan zieten lamiei.

Lamiek lanari ekin zioten hurrengo gauaren hasieratik.

Jon zen Marionen maitemindua. Tristetu ordez, erreka ertzera joan eta lamien lanari begira jarri zen.

Izuz beterik konturatu zen lana oso bizi ari zirela egiten. Zubi-bularrak jasoak zeuden, arkuak ia burutuak. Egunsentia baino askoz goizago bukatua egongo zen lana.

Bihotza minduta, Ligi-Athereira itzuli zen. Ezin zuen ezer egin. Marion galdua zuen.

Etxean sartu eta ezin zuen lorik hartu; patiora jaitsi eta oilategira joan zen. Hegaztiak lo zeuden, lasai.

Beraz, zakarki aurreratu, oilarrari oratu eta mokora puzka hasi zitzaion, harik eta oilarra kantuan hasi arte: kukurrukuuu...!

Une berean, ari ziren lamiak azken harria jasotzen. Oilarra entzutean, harria erre kara erortzen utzi zuten.


Beste bailara batera ihes egin zuten eta gehiago ez da haietaz ezer jakin.

Zubi bukagabearen gainetik, (inork ez baitezake ipini harririk leku horretan) ligiarrak, gero eta geroago ere, arrisurik gabe igarotzen dira erreka bulartuaren alde batetik bestera.



Graxi eta familiarrak

Familiar hauek izaki txiki misterioitsuak dira, galtza gorridunak, gizakiei eskuarteko lanetan laguntzen dietenak, nagusiak atseginak ala gaiztoak diren arduratu gabe. Dena den, bat harrapatzen baduzu, gorde ezazu ongi...





Añes herritxoan, Araban, bazen gizon azti bat. Herritik aparte zegoen haren etxeak bildurra ematen zion jendeari; gutxi ziren hara hurbiltzeko gauza; gainera, arriskutsua omen zen: bat-batean honda zezakeen uzta on bat, abeltalde osoa ero bihurtu, ekaitz ikaragarriak sortu. Ez ditugu aipatzen hark urrutira pozoindu zaitzakeen haurrak! Bazuen beste indar guztiz berezi bat ere: urrutira bidaiatu eta etorkizuna iragartzekoa...

Urte luzeetan izan zituen harreman onak eskualdeko jendeekin. Sutarako egurra ematen zioten, zenbait janari ere bai, elikadurarako zenbait janari. Sagar asko zegoenean, nekerik gabe egiten zitzaizkion konfiturak. Azken batean, hain gogoko zituen intxaur eta hur zaku batzuez hornitzen zuten.

Baina urteen joanean, aztia geroago eta zakarrago eta norberekoiago egin zen. Zerbait gogoko zuenean, beretzat nahi izaten zuen: zaldi eder bat ikusten zuela igarotzen, beretzat nahi zuen. Jabeak amore ematen ez bazuen, heriotza mehatxuak egiten zizkion aztiak. Baina hau ez zen dena: arropa eder batzuk atsegin zitzaizkiola, ba, berehala





jantzi nahi izaten zituen. Urdaiazpiko bat zuela gogoko? Zegoen lekutik hartu eta etxera eramaten zuen.

Hitz batean, begiez ikusitako guztia nahi zuen. Kezka-garri bihurtu zen. Herriko jendeek atea ixten zituzten, arte-gian zarratzen zituzten abeltaldeak, arroparik zaharrenak janzten zituzten etxetik ateratzeko. Bizitza osoa joan zen aldatzen...

Joan ziren urteak eta Añesko biztanleek halabeharrez aguantatzen zuten tirano zahar eta zakar hura, etsai gisara edukitzea baino hobe zutela eta. Baina goraka zihoan herri-tarren amorrua.

—Gaur ahari bat kendu dit.

—Neri, esekita lehortzen neuzkan arropa guztiak!

—Niri buket handi bat bete ardo. Arraioa! Eta nola zera-man!

—Egoera hau eramanezina da!

—Zerbait egin behar dugu!

—Horrengandik askatu beharra daukagu!

—Baina nor ausartu horri ezer egiten?

Asko mintzatzen zen herrian, baina ezer aldatu gabe. Erabakirik ez zen hartzen. Inor ez zen ausartzen haren etxera joan eta hura konbentzitzen ahalegindu edo, gutxienik, mehatxatzen.

Baina, egun batean, etortzen ikusi zuten. Astiro zetorren lehenbizikoz eta irribarrez. Kafe aurrean elkarturik zeuden herritarrengana hurbildu eta begirunez mintzatu zitzaien.





—Zahartzen ari naiz, esan zuen gozoki. Oso bakarrik nago neure etxean. Lagun eder baten ondoan gartzaina erreak afaltzea nahiko nuke...

Ez zen zalantzarik: aztiak ezkontzea nahi zuen!

—Emaztegaia bilatzen badizugu —esan zuen bere zaldia, artaldea, uztaren parte, alkondara bat eta aizto bat galdu zituen herritar batek— itzuliko al diguzu... lehen maileguz eramana?

Ezer ez ulertuaren aurpegia jarri zuen aztiak.

—Bihar itzuliko naiz eta emaztegaia aurkez diezadazuela nahi dut. Gaztea eta ederra ez bada, ezagunak dituzue nire botereak! Herri osoa ezereztuko dut.

Aztiak, bira egin zuen eta joan egin zen.


Ikaragarria zen mehatxua! Jendea, bildu eta eztabaidatzen hasi zen. Zenbaitek egoeraz baliatu nahi zuten aztiarekiko loturak askatzeko. Beste zenbaitek arrazoiak ulertarazi nahi zizkioten. Zergatik eman behar zioten herriko alaba bat? Urrutira joan zitekeenez gero, zergatik ez zihoan txinar baten bila?

Dena den, argi zeukaten: amore eman beharko zioten zaharraren baldintzei. Neska baten bila hasi eta Graxi hautatu zuten. Alaia zen, ederra eta argia. Oraingoz zoriontsu bizi zen, loturarik gabe.

Bila joan zitzaizkion.

—Graxi, aztiarekin ezkondu behar duzu! Zuk erdeinatzen baduzu herri osoa desegingo du.

—Baina —erantzun zuen Graxik—, ez dut agure horrekin ezkondu nahi. Zikina da, gaiztoa, denekin jeloskor







bizi dena. Zer egiten dut nik haren etxean? Galdu egin nahi nauzue.

Baina Graxik bazekien ezin zuela herri osoa halako arriskuan jarri.

Pentsatu eta, azkenean, amore eman zuen.

Ezkontza biharamunean zen egitekoa. Graxi, gaua iristean, poliki-poliki hurbildu zen aztiaren etxera. Leihotik begiratu zuen. Gizona nahastura berezia ari zen prestatzen. Eltze handi batera bota zituen belarrak, hautsak; ondoren makila batez nahasten zuen dena.

Luzaro aritu zen horretan. Eltzea lekuz aldatzea nahi izan zuenean, ez zuen behar adina indar. Orduan, mahai gainean zeukan igitaia hartu, biziki jaso eta berehala agertu ziren lau gizontxo galtzagorri. Galdetu zioten aztiari:

—Zer nahi duzu guk egitea?

—Jarri eltzea suaren gainean. Astunegia da niretzat!

Graxi zurtuta zegoen. Lau gizontxoek oratu zioten eltzeari eta erraz eraman zuten sutara.

Hori eginda, berriz galdetu zioten:

—Eta orain?

—Ezer ere ez. Eskerrik asko zuoi. Herriak ez daki zuek zaretela nire indar guztia. Bihar haiek ez badidate emaztegai bat ekartzen, orduan bidaliko zaituztet etxeak desegin, soroak deuseztatu, abereak hiltzera. Bitartean har deza kezue atsedan.

Aztiak jaso zuen igitaiaren kirtena eta lau gizontxoak han sartu ziren. Ondoren, utzi igitaia, argia itzali eta lotara joan zen.





Graxi luzaro egon zen geld, leihoan ukondoak jarrita. Aztia egiaz loak hartu zuela ikustean, neska, ireki poliki-poliki etxeko atea eta, igitaiaz jabetu zen. Ukitu zionerako hasi ziren gizontxoak garrasika:

—Jauna, zer nahi duzu guk egitea?

Graxi bizkor aldendu zen, igitaia bere kontra estuturik. Baina zarata atera zuen eta esnatu egin zen aztia. Berehala konturatu zen igitaia lapurtu ziotela. Ahalik arinen joan zen neskaren ondoren eta harrapatzeko zorian zegoela:

—Emaidazu nire igitaia! —agintzen zion aztiak.

Graxik, izututa, gero eta hurbilago sentitzen zuen aztia.


Neskak, geldiarazia izango zen unean, ahalik urrutien bota zuen igitaia, harrizko bideraino. Igitaiari, hiru jagi eginik harrien gainean, kirtena hautsi zitzaion. Lau gizontxo galtzagorri, dizdiz egin eta hesian edo eskeran desagertu ziren.

—Madarikatua! Zer egin duzu? —esan zuen aztiak ahots makalez.

Graxik, burua itzultzean, ikara sartzen zuen gizona pixkanaka desagertzen ikusi zuen. Une batzuk geroago, ez zegoen neskatxaren aurrean aztiaren arropak besterik. Neska lasterka itzuli zen herrira gertatuaren berri denei ematera.


Aztiaren etxera joan zen talde bat. Etxea bera ere desagertu egin zen. Han ez zegoen gizon ernegatu, zakar eta norberekoiaaren arrastorik.

Dena den, gizontxo galtzagorririk ez da ageri. Nonbaiten egon behar dute. Nolako zoria harrapatuko lituzkenarentzat!






Amarru batzuk ere jarri ziren. Adibidez, Donibane bezpera gauean, kirtenik gabeko igitaia gorde zen mendian edo hesian, gizontxoak etorri eta han sartu zitezten. Baina, daki-gunaz, inor ezin izan da jeinu familiar txiki hauez jabetu.



Ekilorea

Munduko herri bakoitzak bere erara kontatzen ditu lurraren, Eguzkiaren, Ilargiaren, izarren eta bizitza beraren sorrera. Begira nola azaltzen duten Bizkaiko euskaldunek misterio miragarri hau...





Milaka eta milaka urte direla, izaki biziak Lurra populatzen hasi zirenean, ez zen ez Eguzki, ez Ilargirik, eta mundu guztia bizi zen iluntasun osoan, arrokaren eta harearen errairik sakonenean.

Bai, inor ez zen ateratzen ausartzen gauekoen beldurrez.

Jeinu hauek hegodun zaldi, suge, zezengorri itxurak zituzten. Inork ez zuen nahi haien ondoan egoterik.

Beraz, gizakiak aspertzen hasi ziren. Lurrari laguntza eskatzea erabaki zuten.

—Ama Lur, —hāsi ziren erreguka—, arrisku guztietatik aske bizi nahi dugu.


Lurrak, nekatuta, ez zuen ezer erantzuten edo hitzik ematen.

Baina gizakiak behin eta berriro ari ziren eskari bera egiten. Iluntasuna ez zen beste zerbait nahi zuten.

Azkenean, Lurrak, nekatuta, esan zien gizakiei:

—Laguntza eskatzen didazue eta eman egingo dizuet. Argi bat sortuko dut, izaki argi bat. Izaki honi Ilargia deituko diozue.

Horrela sorrarazi zuen Lurrak Ilargia.





Hasiera batean, gizakiak beldur ziren. Ez zuten inola ere beren harpe babesleetatik atera nahi izan; baina pixkanaka, ohitu egin ziren eta Ilargia maitatzen hasi. Gaueko eta aztiak mindu egin ziren zeruan izar dizdizari eta biribil hura agertzean. Baina haiek ere ohitu egin ziren azkenerako.

Gizaki, gaueko eta aztiek elkarren aurka borrokan jarraitu zuten.

Gizakiak berriz joan ziren Lurraren bila:

—Ama Lur, Ilargiak zoriontsuak egin gaitu, baina zerbait gogorragoa nahi genuke, gauekoak erasoka ari zaizkigu etengabe.


—Bai, —erantzun zuen Lurrak— beste izaki argitsuago bat sorraraziko dut. Eguzki izena emango diozue. Eguzkia izango duzue egunez eta Ilargia gauez.

Horrela sortu zuen Lurrak Eguzkia. Handia zen, argitsuua, oso beroa.

Gizakiak hasiera batean beldurrez, gero, pixkanaka, egokitu egin ziren. Ilargitik oso desberdina zen Eguzkia. Berari eskerrak hasi ziren landare eta fruta-arbolak hazten eta fruituak garatzen. Pozez zoratzen zebiltzan gizakiak. Halako pozaren aurrean, hainbesteko argiak ikaratuta, azti eta gauekoak gauean babestu ziren.

Gizakiek berriz ere Lurrarengana jo zuten:

—Ama Lur, — esan zuten— oso pozik gaude Eguzkia eta Ilargia ematearekin, baina beste zerbait behar dugu: ez dugu arazorik egunez, baina gauean sartzearekin batera, han hasten zaizkigu azti eta gauekoen erasoak. Beren harpetatik atera eta erasoka datozkigu.






Lurra lasaitzen hasi zen. Esan zuen:

—Ongi da! Lagundu egingo dizuet beste behin, baina hauxe izango da azkena. Ulertu didazue? Lore polit bat sorraraziko dut zuentzat. Oso ederra izango da eta gauekoek hori ikustean, Eguzkia bera dela pentsatuko dute.


Horrela sortu zen Eguzkiloa, gauaren, gaisoen, izpiritu gaiztoen, ekaitzen, tximistaren kontrako beldur guztietatik babesten gaituen kardua. Horrela, aldi haietatik, jartzen dute euskaldunek etxeko sarrera nagusian gaueko eta aztietatik babesten dituen eguzkiloa.



Behor zuria

15

Arkakusoaren larrua, behor zuria, printzesa bat eta xirula bat... hori guztia batera herri ipuin eder honetan. Azaltzen zaiguna, norbait, halabeharrez, deabruaren emazte gertatzean ezer ere ez dela erraza.





Errege batek hiru alaba zituen. Gazteenari Fifine zeritzon. Erregeak deitu egin zion.

—Alaba, badut zerbait nire belarri ostean. Kenduko al didazu?

Arkakusoa zen. Fifinek kendu egin zion.


—Ez da ezer —esan zuen neskak.

—Ez diozu egia. Hor bazegoen zerbait!

Gozoa jarri zen, ba, erregea alabak arkakusoa erakutsi arte. Musika tresna baten fita barruan gorde zuten arkakusoa. Xomorroa hazten eta hazten joan zen eta hautsi zuen fita. Upel batean gorde zuten, baina denborarekin upela ere leherrarazi egin zuen. Erregeak arkakusoa hiltzeko agindu zuen. Larrua kendu eta leihoan jarriko zen. «Larrua zein aberrena zen asmatzen zuenak, esan zuen erregeak, aukera zezakeen bere hiru alabetatik bat».

Berria berehala zabaldu zen lurralde osoan; urrez jantzitako gizon bat agertu zen. Aztertu larrua eta esan zuen:

—Upel baten barruan neurrigabe hazitako arkakusoa-ren larrua da.





Erregeak, harrituta, gizon honen omenez eztegu-otourntza handia prestatzea erabaki zuen. Sotora erreserbako ardo bila joateko eskatu zion Fifineri. Erregearen zalditegi aurretik igarotzean, behor zuri batek esan zion eztiki:

—Kontuz, Fifine, zuekin afaltzera doan gizona deabrua da. Zu zara emaztetzat hautatuko zaituena. Harekin joan aurretik, zure aitak dirua eskainiko dizu. Ez onartu. Esaiozu behor zuria eraman nahi duzula, nahiz eta aitak gaizki hartu.

Fifinek, kopetilun oturuntza aurretik, ez zituen jantzi bere soinekorik ederrenak. Alderantziz, bere ahizpak panpin zeuden, ahizpa biak nahi baitzuten urrezko gizonarekin ezkontzea. Erregeak purrustada bota zion Fifineri, bere alaba kutunari. Oturuntza apartaren azkenean, gizonak Fifine aukeratu zuen eta horrela gertatu zen deabruarekin ezkontuta.

Biharamun goizean, joatea erabaki zuten.

Erregeak dirua eman nahi zion alabari.


—Ez, ez dut nahi urrerik, —esan zuen Fifinek— ez dut nahi behor zuria besterik.


—Ez —erantzun zion erregeak—. Neure amak hil aurretxoan egin zidan oparia da. Ezin dizut opari eman.

—Orduan neu ere ez noa senarrarekin. Doala bakarrik. Erregeak amore eman zuen.

—Utzidazu aurretik joaten —esan zion behorrak Fifineri. Deabrua horren aurka jarri zen, baina beste biderik ez zegoenez gero, aurrera igaro zen behor zuria.

Bide luzea egin zuten. Behorra adarkiz babestutako apatxez lurra jotzen hasi arte. Deabrua irentsi zuen leize eskerga ireki zen.







—Sar hadi zazpi urterako —oihu egin zuen behorrak.
Deabrua lurrak harrapatuta geratu zen leizea ixtean.

—Fifine, aske zara zazpi urterako, baina deabrua berriz etorriko da, ez ahaztu. Orain aurrera jarraituko dugu eta printze gisara jantzi behar duzu.

Bat-batean, jantzi ederrak izan zituen eskuetan. Gizon-
nekoz jantzita iritxi zen behor zuriaren gainean gaztelu
eder batera.

—Bada hemen bere amarekin bizi den printze bat, esan
zion behorrak. Halakoren batean, printze gazte honekin
ezkonduko zara. Eska ezazu ostatua.

Erregina, kanpotar hori eta haren zaldi zuria ikustean,
oso pozik jarri zen bisitarengatik.

Beste batean, printzeak esan zion amari:

—Amets bat izan dut eta kanpotar hau neska ikusten
nuen.

—Eta zer ateratzen duzu hortik?


—Ziur daukadala.

—Ongi da —erantzun zion erreginak—, bihar zoazte
biok feriara. Kontuan jaso. Arropei, bitxiei asko begiratzen
badie, emakumea da, arma, ezpata, fusilez interesatzen
bada, mutila da.

Behorrak planaren berri aditzera emanda, Fifine arme-
kin interesatu zen.

Hurrengo batean, printzeak berriz hitz egin zion amari:

—Ziur nago, ba, neska da. Berriz ere lehengo amets
bera izan dut.





—Ongi —erantzun zuen erreginak—, ez dago samurragorik. Gaur neurekin lo egiteko eskatuko diot. Mutila bada neu ezkonduko naiz berarekin, neska bada, zeu.

Fifinek onartu egin zion erreginari berarekin lo egitea.

Printze gazteak negar egin zuen, etsita... erreginak kanpotarra neska zela baieztatu arte.

Jai handia eratu zen ezkontzarako. Behor zuriak, ordura arte Fifinerekin egon zenak, adierazi zion, aurrerantzean ez zuela bere premiarik. Eta berandutu orduko joango zela beste mundu batetik.

Fifine triste jarri zen. Pozteko, behorrek xirula bat eman zion opari.

—Saminduta bazaude, aski izango duzu xirula jotzea. Berehala etorriko natzaizu laguntzera.

Fifine zoriontsu bizi zen printzearekin. Lasaiki hazi ziren bi haur izan zituzten. Baina egun batean, printzeak gerrara joateko agindua jaso zuen. Beraz, utzi egin zuen Fifine.


Aldi honetan, hain zuzen ere, betetzen zituen deabruak leizean preso egin beharreko zazpi urteak. Infernutik atera eta gaztelura joan zen. Bi haurrak ikustean Fifine eta guzti eraman zituen hauek ere. Asko ibili ziren, bide luzea, hiru urkamendi jarrita zeuden oihan itxi batera iritsi arte.

—Hementxe hilko zarete —esan zuen deabruak.

—Hiltzera doan bati ez zaio ezer ukatzen. Xirulaz abesti bat jo nahi nieke nire haurrei.

—Jo dezakezu.

Fifinek jo zituen musika nota batzuk eta berehala azaldu zen behor zuria.





—Lurra, ireki zaitez eta irentsi sekula-sekularako deabru beldurgarri hau —esan zuen behorrak.

Lurrak ireki eta irentsi egin zuen deabrua.

—Orain —esan zion behorrak Fifineri—, zeure etxera eramango zaitut.

—Ezin dut. Nire senarraren amak ikusi nau gizon honekin ateratzen. Ezingo naiz behin ere itzuli nire senarraren etxera.

—Ongi —erantzun zuen behorrak—. Tori, har ezazu makilatxo hau. Ni joan nadinean jo ezazu lurra berarekin.

Egin zuen Fifinek esan zitzaiona eta leiho zabaldun jau-regi ederra azaldu zen bere begien aurrean, harmailadiaren barrenean urrezko iturri eta guztizkoa. Fifine hantxe jarri zen bizitzen bere bi haurrekin.


Aldi batera, printzea gaztelura itzuli zen, baina han bere emaztea eta haurrak ez aurkitzean, bila atera zen, hiru urkamendiak zeuden oihan itsuraino iritsi arte. Bere familia hilik zegoela pentsatu zuen. Atsekabearen atsekabez urkamendietako batean bere buruaz beste egitekotan zebilela, aurreratxoago argitxo bat ikusi zuen. Ikusmiraz harantz abiatu eta etxe ederrean sartu zen. Fifinek berehala senarra ezagutu eta besarkatu egin zuen.

—Zergatik zaude zu jauregi honetan? Non daude gure haurrak?

Fifinek kontatu zion bere abentura, deabruarekin egin-dako lehen ezkontza. Behor zuriak lagundu ziola estualdi guztietan.

—Xirula honekin dei niezaioke.

Jo zituen nota batzuk eta azaldu egin zen behor zuria.





BEHOR ZURIA

Deabru ikaragarriaren istorioa ere kontatu zion. Denaren berri eman zuenean, behorrak esan zuen:

—Zoriontsuak izango zarete hemen, betiren beti.

Eta, berehala, zerura igo zen uso itxuran.






Bizar Gorri

16

*Bikain izeneko mutil bat adu bila abiatu zen.
Bide luzea egin zuen Mendi Berdera iristeko...*





Etxe pobre hartan ez zegoen zer janik. Bikain gazteak etxetik joatea erabaki zuen. Bide luzea egin zuen Mendi Berdea zeritzan mendira iristeko.

Han aurkitu zuen agure bizar gorriak nora joan nahi zuen galdetu zion.

—Beti aurrera —erantzun zuen gazteak—, adua aurkitu bitartean.

—Aurkitu duzu —erantzun zion gizonak—. Zeure pisua zilarretan ematen dizut, urtebete eta egun baten barruan hona itzultzekotan.


Bikainek ez zion gaitzeritzi eskaintzari. Jarritako egunerako hara itzultzeko zela agindu, hartu zilarrez betetako zakua eta etxera itzuli zen. Pozik jarri ziren gurasoak semea itzultzen ikusirik eta urte osoa eman zuten aduaz baliatzen.

Etorria zen bueltatzeko ordua eta Bikain, hitza eman bezala, bidean jarri zen, baina berehala konturatu zen galduta zebilela.

—Non dago, ba, Mendi Berdea? —galdetzen zien bidean aurkitzen zituen guztiei.

Inork ez zekien.

Aurrera jarraitu eta txabolatxo bat ikusi zuen baso ertzean. Atso guztiz makurtua zegoen tente atean.





—Amonatxoa —esan zion Bikainek—, izendatuko al zenidake Mendi Berderako bidea?

—Mendi Berdea —erantzun zion atsoak— hirurehun urte dira oihan honetan bizi naizela eta ez dut Mendi Berdearen aipamenik ere entzun. Baina itxaron unetxo batean. Badut inguruan animalia zelatari pilo. Galdetu egingo diet.

Deitu zien eta denak etorri ziren haren ondora. Baina inork ere ez zuen bisitatu Mendi Berdea.

Miru handi bat iritsi zen gero. Hark ezagutzen zuen mendi hori eta bazekien nondik igaro behar zen.


—Lagun iezaiozu gazte honi —esan zion atsoak—, eta azaldu nola portatu behar duen nahi duena lortzeko.

Bikain jarri zen miruaren bizkarrean eta hegaz joan ziren Mendi Berderantz. Behean, miruak aintzira txiki bat izendatu zion.

—Bizar Gorriren alabek hor bainatzeko ohitura dute. Bi nagusiak gorriz jantzita doaz, gaztea zuriz. Bainatzera doazenean, arropak utzi dituzten lekura irristatuko zara. Ezkutatu egingo duzu jantzi zuria eta ez diozu itzuliko jabeari maitasuna eta fedea zin egin diezazkizun bitartean.

Mirua itzuli egin zen.

Bikainek, bere ezkutulekutik, etortzen ikusi zituen Bizar Gorriren hiru alabak. Jantziak kendu eta uretara joan ziren lasterka. Mutil gaztea kontu handiz hurbildu zen jantzi zurira, hartu eta ezkutatu egin zuen. Bi nagusienak itzuli ziren beren arropak zeuden lekura, jantzi eta, urarekin jolasten jarraitzen zuen gazteenaren ardurarik gabe, itzuli egin ziren. Gazteena, etortzean, tristeturik geratu zen bere arropak ez zeudela eta. Bikain ikusita, itzultzeko eskatu zion.





—Emango dizkizut, maitasuna eta fede hitza ematen badizkidazu.

Neskak hitza eman eta horrela berreskuratu zituen jantziak.

Bikain Bizar Gorriengana aurkeztu zen.

—Neure zilarra berreskuratu nahi dut orain —esan zuen—. Ikusten al duzu oihan hori? Dena moztu behar duzu arratsalde honetan aizkora honekin.

Bizar Gorriren aizkora zurezkoa zen.

Mutil gaztea adoregabetua, zuhaitz handiz jantzitako oihanean sartu zen. Benetako altxorra. Zurezko aizkoraz ebakitzeaz...

Lurrean etzan eta loak hartu zuen.

Eguerdian Bizar Gorrik esan zien bere alabei:

—Zuetako nork joan nahi du basoa botatzen ari den gaztearengana bazkariarekin?


—Ni ez —aurreratu zen erantzutera zuriz jantzitakoa—, hori ez da niretzat.

—Hain zuzen ere —esan zuen Bizar Gorrik—, zeu izango zara joango dena.

Jantzi zuridunak, noski, ez zuen besterik nahi. Lasterka joan zen basora eta lotan aurkitu zuen mutila. Esnatu, adoretu eta jaten eman zion. Ondoren, neskak, makila bat jarri zion eskuetan.

—Ez duzu agintzea besterik eta makilak egingo dizu lana. Mutila basoan sartu zen makila eskuan hartuta.

—Basoko zuhaitz hauek guztiak ipurditik izan daitezela ebakiak, enbortxoetan prestatuak, sutarako piloetan jarriak eta, gainera, eramanak, lekua garbi gera dadin.





Bizar Gorri iritsi zenean harriturik geratu zen, baina ez zuen ezer esan. Biharamun goizean, lautada harritsu batera eraman zuen, ea belarrik ere erne ezin zen lekura.

—Leku hau oso da desatsegina. Urmael, iturri eta lore-pilo eta guztizko soropil bihurtu behar duzu. Iluntzean etorriko naiz lan bukatua ikustera.

—Hori ezinezkoa iruditzen zait, baina saiatuko naiz.

Makilatxoari esker egin zuen agindu zitzaiona. Bizar Gorri etorri zenean, harriturik geratu zen, baina ez zuen hitzez esan.

Hirugarren egunean, Bizar Gorrik lorategira eraman zuen Bikain.

—Zure gaurko lana ez da beste munduko gauza izango. Kaiola honetara iritsi eta barruan dagoen txoriari oratu.

Baina kaiola laino batetik zegoen zintzilik.

Makilari eskerrak, Bikainek harrapatu egin zuen txoria eta Bizar Gorri eman zion.

Azken hau izan zen harrigarriena, baina ez zekien zer esan:


—Ikusi dudanez, dena lortu duzu. Nire alabetako bat ematen dizut emazte.

—Begikoena zaidana jantzi zuriduna da.

Bera izan zen mutil gaztearen emazte egin zena.

Bikainen emazteak esan zuen gau batean:

—Nire aita beti dago bekaitzez zure jakinduria dela eta. Ezagutzen dut. Zu hiltzen saiatuko da. Ihes egiteko bide bakarra alde egitea dugu. Goazen ukuilura eta har dezagun desegokiena dirudien zaldia. Bera da onena eta goazen elkarrekin.





Bikain arineketan joan zen ukuilura, baina zaldirik eska-senak nekatuaren itxura zuela eta, indartsu eta biziena ziruediena hartu zuen. Hanka sartzea egina zegoen. Senar-emazte gazteak lauhanka bizian abiatu ziren zaldi ederraren gainean. Mendi Berdetik urruti zeuden. Euren ondoren lauhanka bizia entzun zuten.

—Nire aita da, esan zuen Jantzi Zurik, zuk ukuiluan utzitako zaldi ona hartu du eta harrapatu egingo gaitu.

Laster, makilari eskerrak, zaldia urmael bihurtu zen, gizona arrain eta emaztea arrantzale.

Bizar Gorri haizearen pare iritsi zen.

—Kaixo, arrantzale, ez al duzu ikusi igarotzen zaldi bizi bat gizaseme eta emakume gazte batzuek gainean zituela?


—Ez, goizetik hona ez da hemendik inor igaro —erantzun zuen arrantzaleak.

Alferrik zela pentsatu zuen Bizar Gorrik handik aurrera segika ibiltzea. Bira eman eta etxera itzuli zen.

Bi alaba zaharrenek parre egin zioten aurpegira.


—Nola ez duzu asmatu arrantzalea gure ahizpa zela eta arraina zure suina?

Bizar Gorri berriz itzuli zen, bere ergelkeria madarikatuz. Baina beranduegi zen. Gazte bikoteak igaroa zuen ibaia eta leku ziurrean zeuden. Bikainek bere gurasoei aurkeztu zien bere emaztea, eta garai bateko bizitza pobrea, atsegin izatera iritsi zen... makilatxoari eskerrak.



Ona eta piztia

Beti zen alabarik gazteena aitari laguntzen ziona, hau arriskuan zegoenean. Berak, adibidez, sugearekin ezkontzea ere onartzen du, eta ez bere ahizpak. Ongi saritua izango zen. Gogokoa dute ipuin hau Irurtzun aldean, Nafarroan.





Errege batek hiru alaba izateaz gainera, oso gogoko zuen feriaz feria ibiltzea, festarik festa. Beti ekartzen zizkien opariak, baina maiz ahazten zen bere alaba txikien oso eder eta atseginari ekartzeaz.

Egun batean galdetu zion alaba gazteenari zer opari nahi zuen.

—Ez dut ezeren premiarik —erantzun zion alabak.


—Neure nahia da baina zerbait zuri ekartzea.

—Horretan diharduzenez gero, ekar iezadazu lore bat.

Joan zen erregea eta egiaz lehiatu zen bere alaba nagusientzat erosketak egiten. Lehenengoarentzat kapela, gerrikoa, urrezko haridun babutxak, gozokiren batzuk eta usaingarriak. Bestearentzat, oihalak, besana, lehenengoarentzat erositako usaingarri berdina eta orduak argi fluoreszentez zituen ordularia.

Gaztelura itzultzean, lorez ongi jantzitako lorategia ikusi zuen.

—Nire alabarentzat lore bat ekartzea ahaztu egin zait. Hemen ditut. Kopuru on bat hartuko dut.





Zalditik jaitsi eta loreak biltzen hasi zen.

Laster entzun zuen ahots sendoa:

—Nork eman dizu baimena lore horiek hartzeko?

—Inork ere ez —erantzun zuen erregeak.

Parre isekaria entzun zen.

—Badakit hiru alaba dituzuna. Urtea bukatu baino lehen ematen ez badidazu, zauden lekuan zaudela, su hartuko duzue zuk eta zure erreinuak.

Erregea urduri sartu zen etxean. Banatu zituen opariak, gazteenarentzako sorta ere ahaztu gabe. Ondoren triste jarri zen. Alabarik zaharrenak esan zion:

—Nork jartzen zaitu horren triste?

—Nire alabaren batek joan nahi ez badu hainbat lore dauden baratzera, ni eta nire erreinua ere suak erreko ditu urtea bukatu baino lehen.

Alaba zaharrenak esan zuen:

—Erre zaitzatela nahi baduzu, baina ni ez noa baratze horretara, egon ziur. Konpon zaitez nire bi ahizpekin.


Bigarren alabak honela jarraitu zuen:

—Konpondu zeure arazoak nahi duzun bezala, baina ni ez noa.

Erregearen tristura handiagotzen zihoan. Alaba gazteak esan zuen azkenean:

—Oso arduratuta zaudela iruditzen zait. Norbaitek iraindu egin al zaitu?

—Zure lore sorta bildu dudanean, ahots indartsu bat entzun dut: «Emaidazu zure alabaren bat urtea bukatu baino lehen, bestela suak erreko zaituzte zeu eta zure erreinua».





—Ene aita, —esan zuen gazteenak— alden ezazu kezka hori. Neu joango naiz.

Neska karroza batera igo zen eta berehala abiatu ziren zaldiak. Eremu batera iristean, gaztelu bikain bat ikusi zuen neskak. Han sartzean, era askotako musika arraroak entzun zituen, abesti alai batzuk. Baina ez zuen inor ikusi. Beretzat egina zirudien ohe handi batean egin zuen lo eta, hurrengo goizean, bere ondoan zeukan katilukada txokolate beroa.

Gero bazkaria aurkitu zuen. Gero afaria, baina inor ikusi gabe.

Egun asko luzatu zen egoera hau. Azkenean, goiz batean, ahots bat entzun zuen:

—Itxi begiak: zure belaun gainean atsedean apur bat hartu nahi dut.

—Bai —esan zuen neskak—, ez naiz ezeren beldur.

Suge handi bat agertu zen. Nahi gabe, apur bat ikaratu egin zen neska. Geroxeago, sugea aldendu egin zen.

Horrela eratu zen haren bizitza. Zoriontsu bizi zen eta ez zitzaion ezer falta.


Egun batean, berriz ere, ahots bera entzun zuen:

—Ez al duzu nahi zure gurasoen etxera itzultzerik?

—Zoriontsu naiz hemen eta ez dut itzultzeko gogo izpirik ere.

Horrela nahi baduzu, alden zaitezke hiru egunez. Eraztun hau ematen dizut: kolorez aldatzen badu, gaixorik nagoela esan nahi du; odol kolorea hartzen badu, arrisku handian nagoela.

Neska gaztea aitaren etxera itzuli zen; aita oso pozik jarri zen alaba ikustean. Bi ahizpek galdetu zioten:







—Oso zoriontsu ematen duzu. Lehen baino politagoa zaude. Norekin bizi zara?

—Suge batekin.

Ez zioten sinestu nahi. Hiru egunak hegaz joan ziren. Neska gazteak eraztunari begiratzean, aldatua ikusi zuen. Igurtzi eta odol kolorea zeukan.

Bizkor itzuli zen gaztelura. Dena zen isiltasuna. Ez zegoen inolako musikarik. Sugeari deitu eta ez zuen inondik aurkitu.

Lorategira irten eta lur-pusketa irauli berria eta izoztua ikusi zuen. Su handia egin zuen inguruan eta sugea agertu zen.

—Zuk ahaztu egin ninduzun, esan zuen. Su hori biztu ez bazendu hila nintzen.

—Egia da —esan zuen neska—, ahaztu egin zintudan, baina eraztunak gogorarazi dit.

Berriz entzun zen musika, eta jai-girora itzuli zen gaztelura.

—Sugeak, gau batean, neska gaztearengana hurbildu eta eskatu zion:

—Nahi al duzu nirekin ezkondu?

Neskak ez zuen erantzun. Ondorengo egunetan, galdera bera egin zitzaion hiru aldiz.

Neskak ez zuen behin ere erantzun, baina bazekien azkenean baietz esango ziola.

Aitaren etxera itzuli zen ezkontza prestatzera. Sugearikin ezkontzea erabaki zuela esan zuen. Erregeak baimena eman zuen, nahiz eta kontra egon. Bi ahizpak harrituta geratu ziren.





—Zer duzu nahiago, suge izan nadila etxetik elizara, ala hobeto, elizatik etxera?

—Nahiago dut zu suge izatea etxetik elizara.

—Neuk ere bai.

Karroza handi bat etorri eta hara igo zen sugea.

—Itxi erreza guztiak, inork ikus ez nazan.

—Baina jaitsi ere egin beharko da, ezta?

—Horrek ez du garrantzirik.

Erregea zen karrozako atea irekitzera joan behar zuena.

Garrasi egin zuen sugearen aurrean, baina nolako harri-dura gazte sotil bat ikustean!

Jai bikaina egin zen erregearen jauregian.

Ezkondu berriak esan zion bere emazteari:

—Goazen geure etxera. Garrantzi handikoa da. Gero ikusiko dugu elkar.

Etxera itzuli zirenean, mutil gazteak saski handi bat eman zion bere emazteari eta saskian suge azala.

Su handia egingo duzu. Gauerdiko lehen kanpai-hotsean bota sutara suge-azala. Guztiz erre behar da eta leihotik bota hautsak hamabigarren kanpai-hotsa jo aurretik. Horrela egin ez baduzu, galdua naiz betiko.


—Saiatuko naiz.

Gauerdi aurretik, su handia egin zuen neskak. Gauerdian, bota zuen azala. Guztiz erretzeaz arduratu zen. Hautsak bildu eta leihotik bota zituen hamabigarren kanpaia jotzen ari zela.

Ahots ikaragarria entzun zen:

—Madarikatzen zaituztet, madarika...

Ahotsa biziki arin joan zen ahultzen.






ONA ETA PIZTIA

Une horretan sartu zen senarra. Oso pozik zegoen.
Enkantatua egon naiz hogeita bat urtez.


Orain ez dut zertaz beldurturik. Bizitza jai-giroan
emango dugu. Lehenengo, zure aitaren etxera itzuliko gara.
Eta horrela egin zen.



Bere arima galdu duen andere feudala

18

Istorio honen mezua: emakume gaizto batek, nahiz eta halakoa izan, zoriontsu egin dezakeela bere alaba... Baina zenbat negarren truke? Istorio hau Oragarren kontatzen zen, batez ere, joan zen mendearen azkenetan.





Ama aberats eta itzal handikoa bizi zen etxe handi batean. Alaba bakarra zuen, izarra bezain ederra, ederra bezain alferra.

—Bihar latsarrira joango zara zeure arropak garbitzera, esan zion.

Alabak sorbaldak jaso zituen eta ez zuen erantzun.

Biharamunean neska ez zen joan latsarrira. Amak, haserre bizitan, eman zion palizaz alaba luzaro egon zen negarez, atariko ateaurrean.

Gizon bat igaro zen handik.


—Zergatik neska eder honen honelako negarrak? —galdetu zion amari.

—Nirekin nahi zuen arropa garbitu, —erantzun zuen— baina ez diot utzi. Lan gogorregia da beretzat.

—Zer beste lan daki egiten?

—Badaki pastelak, saskiak, txori-kaiolak egiten, urretxindorra hezten, josten.

—Josten ere badaki?





—Bai, gizonaren zazpi alkondara egun bakarrean egi-
teko adina.

Gizona txunditurik geratu zen. Neska gaztearen ederta-
sunak liluratuta, bere jauregira joateko eskatu zion.

—Zurekin ezkontzeko hitza ematen dizut egun baka-
rrean zazpi alkondara josten badizkidazu. Gela batean
itxiko zaitut beharrezko oihal eta hariekin. Zeure eskuetan
dago zer egiteko gauza zaren adieraztea.

Horrela, biharamunean, gela batean itxita geratu zen,
oihal eta hariekin. Eguna bukatu aurretik josi behar zituen
zazpi alkondara. Neska honek, alfer hutsa baitzen, ez zekien
orratzari haria sartzen ere. Arratsaldea hastera zihoan, eta
oraindik lehenengoa ere hasi gabe zeukan. Ez zekien nola
egin, eta pentsakor eta triste zegoen.

Bat-batean, amonatxo bat geratu zen leihotik begira.

—Zer egiten duzu zuk hemen? Zergatik zaude horren
triste?

—Zazpi alkondara ebaki eta josi behar ditut eta ez dakit
zer egin. Ez dakit orratzari haria sartzen ere.

Sorgin eta aztia zen amonatxoak irribarre gozoa egin
zuen.

—Nire izenaz urtebetez gogoratuko zarela hitza ematen
badidazu, neronek egingo dut lan guztia amen batean. Bes-
tela nire esku geratuko zara.

—Nola duzu izena?

—Mari Kirikitun, hire izenaz inor oroituko ez dun.

—Hitza ematen dizut: gogoratuko naiz.

Aztia berehala hasi zen lanean eta alkondarak bukatuak
zeuden egunaren azkenean. Leihotik desagertu zen.





Horrela, neskak bere garaian aurkeztu zituen bikain egindako alkondarak eta gizonak eutsi egin zion emandako hitzari. Baina gizona laster konturatu zen, alkondarak egiteaz aparte neskak ez zekiela egiten ezer. Horregatik komentu batean satu zuen hezteko, eta ondoren emaztetzat hartu zuen, hain liluratua baitzeukan neskaren edertasunak.

Alaba pozik bizi izan zen urte betean, alaitasunez gainezka. Baina urtea hurbiltzen ari zela, ezin zuen gogoratu ia erabat ahazturik zeukan aztiaren izena. Tristurak harturik, negarrez hasi zen. Gainean zuen azken eguna.

Jaunak, bere emaztea distraitu eta adoretzeko asmoz, jai alai batzuk eratu zituen jauregian.

Jaien azken egunean, amonaxo eskale bat igaro zen gazteluko ateetatik. Barruko musika entzun zuen eta haragi eta pastel usaina hartu.

—Zergatik dira hemen horrelako festak?

—Andrea, etxeko jaunaren emaztea, triste dago. Senarrak poztu egin nahi du. Diru multzo ederra emango dio barre eragingo dionari.

—Esaten badiot etxekoandreari gaur zer ikusi dudan —esan zuen eskaleak—, ziur egingo du, ba, barre.

Gazteluan berehala sartzeko esan zitzaion eskaleari.


—Zer ikusi duzu, ba, gaur? —galdetu zion emazte tris-teak.

—Atso bat ikusi dut ibai baten gainetik jauzika eta garrasika:

«Mari Kirikitun, hire izenaz inor gogoratuko ez dun...

Herri hontako andrerik ederrena gaur enetako dun...»

Emakume gaztea barre algaraka hasi zen.




—Horixe zen, hain zuzen ere, nik ahaztu nuena. Eman diezaiotela eskainitako ordain osoa.

Gero, idatzi egin zuen aztiaren izena dantza atsegin eta lasaigarri batean sartu aurretik, pastelik finenak janez.

Etxeko jaunak, guztiz zoriontsu, galdetu zion. Baina emazteak ez zion erantzun.

Berak bakarrik zekien nola hartuko zuen laster etorriko zen aztia.




Ama, alaba eta aztia

19

Amelia izeneko neska gaztea, bere ama baino politagoa zen eta horregatik ama erabat zebilen jeloskor.

Amabesoetakoak, bera ere azti gaiztoa, ongi ezagutzen zuen amaren jelosia hau eta haurbesoetakoari kalte egiteko erabili nahi zuen.



Egun hartan, aztiak, Ameliaren ama bisitatzean, laudoriotan aritu zitzaion alaba zela eta. Amak bere senetik irtenda esan zion:

—Nireganako estimaziorik badun, erabat alden nazan neska horrengandik.

Azti gaiztoak hori besterik ez zuen nahi. Besoetakoari laguniezaiola eskatu eta putzu batera hurbiltzean, bultza egin zion barrura.

Amelia gaixoa, erorialdian larri zauritua, goseak oinazetua, hiru egunez egon zen deadarka. Azkenean lortu zuen nolabait ateratzea eta etxerako bidea galduta, okerreko bidetik abiatu zen.


Leku basati batean, gaztelu eder bat agertu zen bere begien aurrean. Norbaitek, berarekin errukiturik, neskamegisara har zezala opa zion bere buruari.

Amelia barruraino sartu zen, atea zabalik baitzeuden. Areto handi batean, otordua zegoen prestatua; hamabi plater kontatu zituen.

Gaztelu osoa bisitatu eta, egiaz, hutsik zegoen hura. Gau erdian, hamabietan, hamabi gizon sartu ziren hots handiz, mahaian eseri eta gogo onez jan zuten. Neska gazteak dena entzun zuen ezkututik, eta lapurrak zirela ulertu.

Hamabi lapurrak goizean oso goiz atera ziren, mahaia zegoen bezala utzita. Ameliak, inor ez baitzuen ikusten, harrikoa egin, mahaia jaso eta gauerako berriz ere otordua prestatzea erabaki zuen. Berehala oheak egin eta ezkutatzera joan zen.

Lapurrak gaueko hamabietan etorri eta mahaikoari





harrera ona egin zioten, aiko-maiko gehiegirik gabe. Baina, misterioa azaltzeko, beraietakoren bat isilean gazteluan geratzea erabaki zuten.


Goizean goiz atera ziren beren segadak prestatu eta bidaiariei lapurretak egiteko. Ameliak harrikoa egin, otordua prestatu eta oheak egin zituen. Bere izurako gizon bat zegoen ezkutaturik behean.

Neskak errukia eskatu zion belaunikaturik. Lapurra samurtu egin zen eta gauean bere aurkikuntzaren berri emanaz, Amelia gazteluan mantentzea proposatu zuen.

Azti gaiztoak laster jakin zuen bere besoetakoa lapur batzuek babestua bizi zela. Biziki joan zen ama jeloskorra-
ren etxera. Ez zuen ezer egin nahi izan honek alaba ikustea gogoko baitzuen.

Amelia trabatik kentzea zen, bestalde, amabesoetako gaiztoaren ametsa. Beraz, gaztelura joan, eta neskaren amabesoetakoa zela esan baitzuen, ongi onartua izan zen. Aztiak eskaintzen zion ogi zuri ederra neskak jan nahi ez bazuen ere, halako senideari horrenbesteko irainik ez egi-tearren, mokadu bat jatera behartu zuten neska. Zatitxo bat jan orduko sartu zen lozorro sakonean. Aztia desagertu egin zen bat-batean.

Ameliaren lozorroak hiru hilabete iraun zuen. Lapurrek ez zekiten zer egin. Kristalezko atautean sartu eta urrutira, ibai ertz batera eramatea erabaki zuten. Inguruan ehizean aritu ohi zen noble batek ikusi zuen igarotzean. Harritu egin zen aurkikuntzarekin eta Ameliaren aurpegia ikustean nes-karekin maitemindu zen.



Nobleak bere gaztelura eramana eta besaulki batean ipini zuen.

Horrela ikus zezakeen nahi adina lokartutako ederraren aurpegia.

Noblea sendagilearen bila joan zen egun batean gazteluko neskame batek oparia egin zion Ameliari. Buruan sartua zuen honek Amelia, lanik ez egitearren, ari zela lo plantak egiten.

Opariak desegin egin zuen aztikeriazko loa eta Amelia hizketan hasi zen. Baina zer egiten zuen berak butaka hartan, gela ezezagun hartan? Zintzoki kontatu zien bere historia.


Ameliarekin jeloskor zebilen neskameak, bera baino ederragoa ikusten baitzuen bestea, barrutik aldatu rik historia hunkigarri harekin, Amelia maitatu eta babesteko hitza eman zuen.

Nobleak, neska esnaturik aurkitzean pozez gainezka eta inoiz baino maiteminduago, emaztetzat hartu zuen. Ezkondu eta urtebetera haur eder bat izan zuten.

Amabesoetako gaizkinarenganaino iritsi zen Ameliaren egoeraren berria. Ezin zuen eramane hura zoriontsu bizitzea. Sutegian prestatu burdinazko orratz bat eta bidean abiatu zen. Gaztelura iritsi eta Ameliaren amabesoetako zela esatean, harrera beroa egin zioten. Haurra lotan zegoen sehaska ondora eramane zuten.

Emakume gaizkinak kopetan sartu zion orratza haurrari. Amelia semearengana hurbildu zenean garrasika, uso bihurtua izan zen eta aztiak hartu zuen ohean emaztearen lekua.

Noblea emaztearengana joan zen ehizatik itzultzean. Askok aldatu rik aurkitu zuen bere maitea, baina ez zekien





zergatik. Haurra, berriz, beti ari zen negarrez. Giltzaria arduratu zen horrekin.

Biharamunean, lorazaina harrarteak zaintzen ari zela, sorbaldan kokatu zitzaion uso bat.

—Morroi ona, non dago nire senarra? Ahaztu egin al nau? Nola dago haurra?

Lorazainak ezagutu egin zuen Ameliaren ahotsa eta horrela adierazi zion nobleari.

Biharamun goizean, ehizara joan ordez, lorategira joan zen senarra. Usoa hurbildu zitzaion inguruan hegaz egitera.

—Aldendu nigandik piztia itsusi hori —esan zuen aztiak—; lehenbailehen harrapatuz ekidingo litzateke adu txarra.

Nobleak oso krudela ikusten zuen bere emaztea (bere emaztetzat baitzeukan aztia). Baina inoiz ere ez baitzion ezer ukatzen, usoa sukaldera eramateko agindu zuen.


Giltzaria ukatu egin zen hiltzera.

—Zure emaztea zakarki aldatu da, era guztietako apektak ditu, gaizkina da, haurrari negar eragiten dio. Nik ez nuke hilko uso hau.

Joan zen giltzaria haurrarengana eta hulbiltzean ikusi zuen burdinazko orratza. Harrituta, atera egin zion. Sorginkeria bukatuta, haurra isildu egin zen eta usoa desagertu, benetako Amelia agertu baitzen haren lekuan.

Denak joan ziren aztiaren gainera, hark ez baitzuen ihesik egin, eta sutara bota zuten.


Azti gaizkinarengandik aske, Ameliak, bere senarrak eta bien haurrak egun zoriontsuak bizi izan zituzten gaztelurik atseginean.



Xirula eta laban sorginduak

20

Bidean amona txiki xabar bat aurkituko bazenu, eraz eta adeitsu portatu. Zama astunen bat badarama, lagundu! Baliteke opariren bat emango dizun maitagarria edo arazoak sordezazkizukeen sorgina izatea... Dena den, irribarre bat ez da neketsua.





Hiru anaia bizi ziren etxe batean. Astero joaten ziren, txandaka, aldiko produktuak azokan saltzera. Zaharrena joan zen goiz batean, saskian mahats-mordoak zituela. Bidean aurkitu zuen guztiz zimurtutako amonatxoak, maliziaz galdetu zion:

—Nora zoaz, gizona, zure saskiarekin?

—Azokara.

—Zer saldu behar duzu, ba, azokan?

—Adarrak! —erantzun zion txantxaz.

Eta bidean aurrera jarraitu zuen parrez.


—Sal itzazu, ba, adarrak nahi baduzu!

Azokara iristean, nolako harridura mutilarena saltzeko zituen mahats-mordoak prestatzean. Adarrak zeuzkan bere saskian. Ez zituen erakutsi ere egin.

Etxera itzuli eta ez zuen ezer esan.

Hurrengo astean, bigarren anaia joan zen azokara, bere txandan. Zaku bete errezil-sagar zeraman saltzera.

Amonatxo zimurrez beteak bidean aurkitzean galdetu zion amultsuki:





—Nora zoaz, gizona?

—Azokara.

—Eta zer da, ba, azokan saltzen duzuna?

—Zapoak.

Eta aurrera jarraitu zuen atsoaren kontura barrezka.

—Saldu, ba, zapoak nahi baduzu!

Azokara iritsi eta errezil-sagarrez beterik zeukan zakua irekitzean, hura gaztearen harridura! Zapoz beterik zeukan zakua eta!

Hurrengo astean, hirugarrenari, gazteenari, tokatu zitzaion. Gregorio zeritzan. Lekale freskoak zeramatzan. Aurreko asteetako amona zimurra aurkitu zuen bidean.

—Nora zoaz, gizona?

—Azokara. Lekale freskoak saltzera.

—Lekaleak, garesti saltzen al dituzu?

—Egiten duten prezioan. Ikusi nahi al dituzu? Erakus diezazkizuket eta zerorrek nahi dituzunak eman ere bai.

—Eskerrik asko. Asko dauzkat baratzean. Baina saritu egin nahi zaitut, batez ere, amona honekin izan duzun adeitasun eta xalotasunagatik. Har ezazu amantal hau. Gose zarenean, ez duzu izango nahi duzun lekuan zabaltzea beterik eta janari onak izango dituzu. Beti izango duzu zure gosea asetzeko adina.

Gregoriok, harriturik, gorde egin zuen amantala. Amonak, poltsikotik atera eta xirula bat eman zion mutilari

Har ezazu xirula hau ere. Jotzen duzunean, abere guztiak entzuten jarri eta zeugana etorriko dira.





Gregoriok xirula eskuratu zuen. Amonak, hizketan jarraituz, esan zion:

—Har ezazu laban sorgindu hau ere. Abere eta gizakien eraso guztietatik babestuko zaitu. Ez duzu laban premiarik izango mehatxatzen zaituzten haiek lurrera botatzeko. Aski izango duzu zabaltzea.

Gregoriok labana ere hartu eta ameslari jarraitu zuen azokarako bidetik. Lasai saldu zituen zeramatzan lekale guztiak.


Bitartean pentsatzen zuen. Zergatik itzuli landetxera bere anaiekin bizitzera? Amonatxoak egia esan bazuen, mundu guztitik ibil zitekeen beldurrik gabe.

Beste bide bat hartu eta, bakarrik geratu zenean, lurrean zabaldu zuen amantala. Laster izan zuen bazkari ederra. Gosea aseta, abenturari lotu zitzaion.

Bazen lurralde batean, arratsaldero, ahari-taldeak larretik etxeratzean bat gutxiago kontaktzen zuen nagusi aberats bat. Bazen mendian, zalantzarik gabe, ahari bat jaten zuen suge eskergaren bat.

Gregoriok nagusi horri eskaini zizkion bere zerbitzuak.

Joan zen mendira bere abereekin eta leku eroso aurkitzean, amantala zabaldu eta hamarretakoa egin zuen. Laster, eguzki ederraren eraginez, lo geratu zen. Iluntzean xirula jo zuen. Ahariak mendi guztitik etorri zitzaizkion, baina, aldi berean, baziren han, ahariekin batera, igelak, arranoak, otsoak eta, batez ere, mehatxuzko begiradako Herensuge eskerga, baina ahariak bezala xirulari erantzuten ziona.





—Hauxe da ahariak irensten dituena, esan zuen Gregoriok; froga dezadan orain labana.

Artzainak labana zabaltzean, mustroa hilik erori zen.

Biharamunean ere, inularrean, Gregoriok xirula joaz bildu zituen bere ahariak. Xirula jotzean, bigarren Herensuge bat atera zen sasitzatik. Artzainak zabaldu labana eta mustroa hilik erori zen. Ahariak kontatzen hasi eta ez zitzaion batik ere falta.

Biharamunean, gauza bera gertatu zen:

Gregoriok hamarretako gozoa egin eta logureak menderaturik, loak hartu zuen. Ilundu aurretik, abereak biltzeko xirula jo zuen dei gisara. Trumoiaren pareko hotsa entzun zen. Gregoriok Herensuge izugarria ikusi zuen hurbiltzen, aurrekoak baino lodiago, handiago eta basatiagoa. Gregoriok bere labana zabaldu orduko hilik erori zen mustroa, baina ahari bat falta zen.


Artzaina bila abiatu eta Herensugearen etxea izan behar zuen harpe batera hurbildu zen. Harpearen aurrean, geldi zegoen aharia.

Harpe barrenean malenkoniaz beterik zirudien neskak ederra ikusi zuen. Neskak Gregorio ikustean esan zion:

—Badira bost urte Herensugearen harpe honetan bahiturik daramatzadanak. Eskerrik asko askatu nauzulako.

Ibarrera jaitsi zenean, ez zen ahari batik ere falta, baina, batez ere, berarekin zeraman gero bere emaztea izan zen askatutako neskak.


—Batez ere, —esan zuen emakumeak—, ez itzazu galdu amantala, xirula eta labana. Hauek dira munduko gauzarik preziatuenak.



Marro beltz, ahari beltza

21

Uztaritze eta Senpere bitartean, bazen han bizi izandako hamalau semeengatik, «Hamalauena» deitutako etxea. Denak ziren ikazkinak. Bi geratzen ziren soilik: Zabarraena, Pepe Handia, baina izatez txikia, eta gazteena, Pepe Txikia, baina denetan handiena. Beste anaiak Ameriketara joan ziren.





Igande batean, eguerdi ostean, aitak esan zien Pepe Handiari eta Pepe Txikiari:

—Zoazte Mentlara eta ekartzazue bi zahagi ardo eta hamabi sardina. Datorren astean lan asko izango baitugu basoan, zer jan eta zer edan eduki dezagun.

—Bai, aita, erantzun zuten bi Pepeak, bi zahagiak hartu eta bagoaz.


Pepe Handiak eta Pepe Txikiak gailurretatik jo zuten eta arin iritsi ziren muga aterpera. Errioxako ardo onez bi zahagiak betearazi, erosi hamabi sardina, jan arin-arin ogi pusketatxo bana eta etxerako bidea hartu zuten. Bizkor zihoazen, gaua ere gainean baitzuten.

Okilauko mendiska igotzen ari zirela, alai zihoazen halako erosketa onekin aitak izango zuen poza antzemanetz. Gailurretik hurbil, hots arraroa entzun zuten.

—Hontza da, Pepe Txikia?

—Ez, gaueko beleren bat ziurrago, Pepe Handia!

Begiratu zehatzago arte handira eta, ikusi zutenez, adaburu guztia zinta gorri ilunez zegoela hornitua.





—Ai, ai, Pepe Txikia, liztor habia polit baten aurrean gaude. Sorginak dira. Aitari entzuna diot, badirela hiru sorgin: Mari-Martin, Maria Piper-Beltz eta Atso-Katero...

—Sal gaitezen hanka jokoan, Pepe Handia!

Hitz horiek esan besterik ez eta sorgin bat azaldu zitzaien aurrez aurre, indar guztiez garrasika. Beste bat atzean jarri zitzaien.

Pepe Handiak zahagiaz jo zuen sorgin bat, baina haie-tako batek berehala kendu zion zahagia.

Bi anaiek lasterka alde egin zuten, oraindik luzea baitzen bidea. Inork ez zien jarraitzen, baina begien itxi-ireki batean, bi sorgin lehenbizi eta hiru gero jarri zitzaizkien aurrean.

Pepe Txikiak beste zahagiaz eraso zien. Hau ere kendu egin zieten...


Espainiako ardo onez betetako bi zahagiak galdu zituzten. Ez zuten sardinak besterik.

Buruan pentsamendurik ilunenak zituztela, isilik zihozten bidean aurrera. Honetan, berriz ere garrasiak Ur-Onttoa iturri ondoan.

Inolako zalantzarik gabe, Pepe Handiak oratu sardinei, besoa astindu eta hirugarren sorginari bota zizkion. Honek hartu eta eraman egin zituen.

Hor bukatu zen mutilen alaitasuna. Pepe Handia eta Pepe Txikia lur jota zeuden. Zer esango zien aita. Ezina zen atzera bueltatzea, izutuegiak zeuden horretarako.

Iritsi ziren Longue-Dande-ko gailurrera eta han ikusi zuen Imanol, Artzain-Handia.





—Nora zoazte ordu hauetan, Pepe Handia eta Pepe Txikia? —galdetu zien Imanolek.

—Bide txarretik goaz —erantzun zuten.

—Ba nik ez dut ezagutzen hoberik. Zer gertatu zaizue? Bi anaiek dena kontatu zioten Artzain-Handiari.

—Izututa horrelako huskeriagatik! —esan zuen honek—. Non ikusi dituzue sorginak azkenengo aldiz?

—Ur-Ontto iturrian.

—Ongi da.

Artzain Handiak deitu bere ahari beltzari eta berehala jarri ziren bidean.

Imanol zuzen joan zen iturrira bere marro beltzarekin. Hurbiltzen ari zela, hiru sorginak somatu zituen kantuan.

Mari-Martin zen lehenbizikoa. Honela esaten zuen:

*Sardina begi gorriak,
itsasotik ekarriak.*

Mari Piper-Beltzek jarraitzen:

*Badugu edari ona,
Pepe Handi txikiarena!*

Atso-Katerok bukatzen:

*Nik, nik badut ardo ona,
Pepe Txiki handiarena...*





Imanolek han zituen, ba, hiru lotsagabeak. Marro Beltz, ahari-aitari, animalia handiari dei egin zion:

—Marro beltz ardi, hiru, bi, bost.

Hori entzutean, ahariak alde guztietara astindu zuen lurra.

—Hiru, bi, bost!

Aharia lasterka hasi eta lehenengo sorginari eraso zion, gero bigarrenari eta azkenean, hirugarrenari. Iturri ondoan ez zen geratzen sorgin lotsagaberik.

Imanol Artzain-Handiak hartu zituen Errioxako ardo onez betetako bi zahagiak (sorginek hasi besterik ez baitzituzen egin) eta sardinak, azken hauek hondatuagoak marro beltzek erasoetan zapalduagoak baitzeuden.

Pepe Handia eta Pepe Txikia, zahagiak Imanolen eskuetan ikustean, pozez jauzika jarri ziren.


—Izurik gabe joan zaitezkete etxera —esan zien artzainak—, eta ez ahaztu eguneko abenturak kontatzea. Eta gero, inoiz nire premiarik baduzue...



Nola Kattalinek ziria sartu zion deabruari

22

Bizitzako unerik zailenetan ere, ez da itunik egin behar deabruarekin. Begira nola emakume adoretsu batek, Kattalinek, salbatu zuen bere senarra.





Manex, Atarrantzeko gizon gizagaixoak, ez zekien zenbat seme-alaba zituen. Kattalin, haren emaztea, argal eta ahula zegoen. Manexek gau eta egun aritu behar zuen lanean. Bere haurrak sekula ere ez ziren behar bezala janzten eta gose ziren. Egoera horretatik ateratzeko moduak pentsatzen aritzen zen etengabe Manex gizagaixoa.

Egun batean, enbor baten gainean eserita zegoela, oroi-tu zen bere gazte denboretan maiz aipatzen zirela Orhi gainean elkartzen ziren intxixu eta sorginez. «Hara joatea nahi nuke estualdi honetatik atera nazaten» esan zion bere buruari. Pentsatuago eta bere buruari gehiago esaten zion berak ez zuela beste aterabiderik.


Goiz batean, zeukan onena jantzi zuen.

—Nora zoaz? —galdetu zion Kattalinek.

—Bisita bat egin nahi diet mugako lehengusuei —erantzun zuen, gezurretan—. Ez dakit noiz itzuliko naizen.

Baso handi baten hegalean, intxixu eta sorginak elkartzen ziren lekurantz abiatu zen. Han jesarri zen itxaroten.

Oraindik ez zen gauerdia...






Gauerdi puntuan, zurrumurru bat sortu zen alde guztietatik eta Manexek, begien itxi-ireki batean, ilargiaren argipean, atso herren bat ikusi zuen erratz gainean zaldizka, eta ondoren intxisu eta sorgin pilo handia. Asanblada guztia belardi batean elkartu zen, harri baten inguruan. Bakoitzak, bere txanda iristean, gora igo eta handik ematen zuen astean zehar egindakoen berri. Bikain zihoan guztia, adar artetik begira zegoen gizagaixoarentzat. Manexek sekula ere ez zituen entzun hainbeste gertaera xume edo bereizi batera. Bat-batean, partaide guztiek eskua eman elkarri eta alboan jarri ziren. Atso herrenak, sorginen erregina baitzen, igo harri gainera eta abesti zozo bat abestu zuen ahots itsusiz. Abestia-ren letra, oharra zen sorgin eta intxixuentzat: hurrengo larunbatean ere han elkartu behar zuten.

Sorgin herrenak harri gainean eserita jarraitzen zuenez, Manex hurbildu egin zitzaion.

—Ni gizagaixo bat naiz. Haur asko dauzkat eta emaztea gaixorik...

—Saiatuko naiz laguntzen —esan zuen sorginak—, baina baldintza batekin. Begira zaku txiki hau. Urrez beteta dago. Urre honek kopuru berdinean jarraituko du, nahiz eta hortik ateratzen joan. Horrekin aberats zara betiko. Zure emaztea ere senda nezake. Aurki, zure etxerako bidean, koba baten aurretik igaroko zara. Hots arraroak entzungo dituzu. Ez izan beldurrik. Hurbildu eta bildu sarreran hazten den belarra. Belar horri egunean hiru aldiz irakin eragingo diozu. Zure emazteak ur-egosi hori edaten badu, laster sendatuko da.

Manexek sekula entzungabeak zituen halako hitzak.





—Nor zara zu? Tratua norekin egiten dudan jakin nahi nuke.

—Belzebu naiz ni. Sorgin eta intxixuen errege-erreginen fedean, infernuko zazpi deabru handienetako bat.

—Eta zer egin behar dut poltsatxo honen jabe izateko?

—Hogei urterako uzten dizut, zure aberastasunez balia zaitezzen. Eguna iristean nirea izango zaitut. Infernura etorriko zara. Ez dugu hain gaizki ere pasatzen.


Manexen aukeraketa egina zegoen: gehiago ez zituen ikusi nahi bere haurrak gose eta emaztea gaixo. Eskua luzatu zuen poltsa hartzeko.

Sorginak eman zion eta berehala aker bihurtuta, lauhankan joan zen Orhi mendi gailurrerantza.

Deabruak aurretiaz esana erabat bete zen. Kattalin sendatu egin zen. Haurrak sendo eta alai hazi eta hogei urteak eroso joan ziren.

Manex deabruarekin egindako itunaz gogoratu zen. Eta gutziatsu eta arduratan jarri zen. Kattalin konturatu ere bai eta jakin egin nahi izan zuen halako tristuraren arrazoia. Manexek ezin izan zuen isildu gehiago itotzen zuen isilpekoa:

—Badira hogei urte; orduan esan nizun lehengusu aberats baten etxean izan nintzela eta berak eman zizkidala urrez betetako zakutoa eta sendabelarrak. Gezurra esan nizun. Deabruak eman zizkidan guzti horiek. Itun bat egin nuen berarekin eta badatorkit haren eskuetara joateko eguna. Horregatik naho hain triste.





—Ah! —oihu egin zuen Kattalinek—, horrela da, orduan. Ez izan beldurrik, Manex, asmatuko dut deabruari ziria sartzeko modua.

Egun batean, hitzarmeneko orduan, Belzebu hurbildu zitzaion Manexi.

—Bila natorkizu.

Baina han zegoen Kattalinek honela hitz egin zuen:

—Manex —esan zuen ahots ozenez— etxe honetako nagusia da. Eta ni etxeakoandrea. Ez du baliorik nire baimenik gabe zurekin egindako hitzarmenak, hori nirekin konprometitua dagoelako eta ni berarekin.

—Nork sendatu zaitu, neronek ez bada? —galdetu zion deabruak— eta aberastasunean bizitzea eman dizun urre hori, nork eman dizu, nik ez bada? Bera adina aprobetxatu zara eta ez duzu zer esanik.

—Egia da —esan zuen Kattalinek—, ezin dut eragotzi zuk Manex eramatea. Baina hori joan aurretik bidezkoa da etxeke lana eginda egotea. Has gaitezen lanean. Eta zuk, nahi al duzu, itxaroten zauden bitartean, zuri ere lanen bat eman diezazudan?

—Zergatik ez —esan zuen deabruak txantxaz.

—Hara hemen bi ahari-larru. Bata zuria da eta bestea beltza. Zoaz errekarara eta garbi itzazu biak zuri egon arte.

Deabrua errekarara joan zen, minutu gutxikoa izango zelakotan. Garbitzen hasi eta, ekinaren ekinez, larru zuria geroago eta zuriago jartzen zen eta beltza, berriz, geroago eta beltzago. Indar berriz ekin zion lanari besoari sendo eraginez. Baina ez zuen emaitzik lortzen.






Amorruak erretzen, etxera itzuli eta Kattalinen oinetara bota zituen bi larruak.

—Gorde itzazu zeure ahari-larruak eta zeure senarra. Garbiketa lanetan denbora gehiegi galdu dut. Beste batzuk eraman behar ditut infernura, zer axola zait hori!


Egun horretatik aurrera, ez Manexeko ez Kattalinek ez zuten gehiago deabruaz ezer entzun.



Urrezko zezena

23

Mundu osoan jendeek beldurra diete lurraren erraietara sartzen diren leizeei. Han bizi dira jainko bakanak, mustro harrigarriak. Euskal Herrian uste da leizeetan bizi direla iratxo kaltegarriak. Hobe da gehiegi ez hurbiltzea. Hala ere, Araban, Okinako elezahar batek dioenez, lurraren erraietan, era guztietako altxorrak omen daude...





Lekuko biztanleek etengabe mintzatzen ziren leize honetaz. Gauero, sutondoan, autu edo solas bera erabiltzen zuten.

—Leize horretan bizi diren iratxoak gaizkinak dira. Irentsi egingo dituzte beren habiara sartzen ausartzen direnak.

—Jatsi hadi barrenearaino eta ikusiko duk. Ez dik balio ezagutzen ez direnez mintzatzeak!

—Iratxoek eta ingumek, zezen, ahari, ardien itxura dute.


Baina barrenenean urrezko zezena dago.

—Horiek ipuinak dira, nik ez ditut sinesten.

—Behin ere ez nintzateke han sartuko, deabrua da han bizi dena.

—Bai, eta sorginak larunbatetan elkartzen dira.

Horrelakoak ziren herriko jendeen elkarrizketak. Artzain gazte bat lehiatsu ari zen entzuten. Ez zuen ezer esaten. Begiak disdiska zituen beldurra gorabehera. Baina egun





batean, oraindik ere altxorraz mintzatzen zela, bere adua probatzera abiatu zen.

Lehenengo Okina leizearen hurbilera eraman zuen bere ahari-taldea. Han, zaintzen ari bailitzen egin zuen une batez. Abereak lasai ari ziren belar berdea jaten. Arte handiaren ondoan eseri eta ametsetan hasi zen: borrokari ausarta zen, lantza eta ezpataz armaturik leizean sartzen ere ausartu zena. Han, hegodun suge antzeko abere izugarria joan zitzaion gainera, baina kolpe bakarrez moztu zion lepoa. Ez zeukan altxorraz jabetu eta etxera bueltatzea besterik. Bere amak, harriturik, zoriondu egiten zuen hain ausarta izateagatik.


Ametz honek beroturik, hurbildu egin zen, beraz, leizera. Barruan dena zen iluntasuna. Goroldiozko liana eskergak zatozen sapaitik behera eta piskanaka ahalegindu egin behar zen arnasa hartzeko. Une honetan, odola izoztu zioten garrasi beldurgarriak entzun zituen.

Artzaina bere ahari-taldea bildu, dei egin eta herrira itzuli zen. «Santa sekula ez naiz gehiago hara joango», esan zion artzainak bere buruari.

Baina, biharamunean Okinako leize inguruan zegoen berriz ere. Hura artzainaren harridura harkaitz artean bildots jaiο berria tristeki beeka ikustean.

Kobatik atera berria da, esan zion artzainak bere buruari. Deabrua bera da, zalantzarik gabe.

Baina bildotsa hain ahula azaltzen zenez, galdu egin zela pentsatu zuen eta ama otsoren batek jan ziola.





Artzainak, bildots beltzarengana hurbildu eta ardi batengana eramateko oratu zion. Amaordeak elikatu eta indartuko zuen.

Une horretan, Okinako artzaina indar izugarri batek hartu zuen eta leizeak irentsi. Orbel igarra bezain arina ematen zuen. Bere bularraren kontra zeukan bildotsak irribarre egiten zuen era bereziz.

Eroriera bukatu zenean, artzaina ongi baitzegoen leizearen barren-barrenean, sabaia ikusi ere egiten ez zitzaion areto handi batean.

Su handia zegoen garretan aretoaren erdian.

Bildotsa desagertu egin zen. Bakarrik zegoen artzaina. Aldendu egin zen pixka bat leizearen barrenari begiratzeko. Bat-batean, plataforma baten gainean, irudi txundigarria ikusi zuen. Zezen izugarria zen, indartsua eta zurruna. Suaren garrek erluzetan jartzen zuten haren urre kolorezko larrua. Adarrak distiratsuak eta miragarriak ziren. Artzainak, lehen harridura igaro ondoren, esan zuen:

—Egiazko arrazoiak zituzten altxorraz mintzatzen ziren herritar haiek. Ez da sekula izan honen ezohizkorik. Neu izan naiz aurkitu dudana. Amari esango diot.


Hitz hauek entzutean, zezenak begiak, hobeki esanda, bi ilinti, ireki zituen. Luze begiratu zion mutikoari.

—Deabruaren begirada —oihu egin zuen artzainak.

—Zerorrek esan duzu!

Ahorik ireki gabe erantzun zuen irudiak. Zezena ez zen mugitu. Begiak zituen soilik biziak.

—Asko izan dira honuntza iritsi direnak, Okinako leizearen barrenean, altxorra aurkitu eta eramateko asmotan.







Ikusi nauen inor ez da bizirik atera. Leize ilunaren zoko guztietatik dabiltzan animalia beldurgarri bihurtu ditut. Beraiek dira batzuetan negar egiten dutenak.

Artzaina dardarka zegoen orbelaren pare. Zein animalia beldurgarri bihurtuko ote zuen bera?

—Ni gaztea naiz —esan zuen orduan ahots bigunez—, nik ez nuen zu molestatzeko asmorik. Amaren begiko izan nahi nuen!

Zezena barrezka hasi zen; gero isilik geratu zen luzaro.

—Ongi, zu ez zaitut aldatuko. Herrira itzultzen utziko dizut. Nik badakit han herrian hasita daudela Okinako zezenarena ez sinesten. Nitaz mintzatzeko baimena ematen dizut. Istorio horren premia dut, existitzen irauteko. Uler-tzen duzu?


Artzaina belardi batean aurkitu zen. Ardi baten beak esnatu zuen. Une batean, ez zuen jakin non zegoen. Bere ardiak inguraturik zeukatela konturatzean, barrezka hasi zen.

—Ah! hau ametsa izan dudana. Begira zer aurkitu dudana, larregia dela istorio eta altxorretan sinestea...

Pauso batzuk ibili zen hanketako muskuluak askatzeko eta leizera hurbildu zen berriz ere. Deabruak aldatutakoen negar hitsak entzun nahi zituen berriz ere.

Han zegoen bildots beltz bat, tristeki ari zen beeka. Artzaina harengana hurbildu eta luzaro egon zitzaion begira. Mutikoak bildotsa laztantzeko asmoz luzatu zuen eskua, baina azken momentuan atzera egin zuen.

Orduan, lasterka aldendu zen leizetik. Bildu zituen bere ardiak eta herrira itzuli zen. Aurrerantzean, behin ere ez zen joan mendira Okinako leizean aldetik.





Egun batean, suaren ondoan, jada aguretutako Okinako artzainak, bere istorioak kontatzen zizkien gaztetxoei, eskuak makila gainean jarrita.

—Konta iezaguzu Okinako istorioa —esaten zioten.

—Pozik egingo dut, baina honek ez diezazuela eman haruntza joateko, eta bildots beltza laztantzeko gogorik. Inor ere ez da asaldatu behar leize horretako isiltasunarekin. Inork ere ez ditu entzun behar hango negar hitsak —esan zuen artegatasunez—. Norbaitek harriren bat botatzen badu leizera, urrezko zezena ateratzen da eta begiak erretzen ditu.




Barre egiteko bi ipuin

24

Atseginezko izaten da auzokoei iseka egitea, baien butsak azpimarratzea. Hemen frantsesei egiten zaie iseka, beste inor baino argiagotzat baitituzte beren buruak.

Hainbeste denboratan ikara sartu duen otsoaz ere lasai barre egin daiteke, inolako arriskurik gabe.





ASTOA ETA ASTRONOMOAK

Baziren behin Espainian dirua egitea pentsatu zuten bi astronomo. Beren ustez, Frantzian ez zieten eskaintzen merezitako estimaziorik. Paregabetsat jotzen zituzten beren buruak.

Igaro zituzten, ba, Pirinioak eta ez ostaturik ez tabernarik ez zegoen herri batera iritsi ziren.


Soroan lan egiten ohituaren itxurako zuen amonaxoa ikusi eta gau hartarako beraientsat ostaturik emango al zuen galdetu zioten.

—Oso pozik. Gure ganbara oso zabala da, zuentzat nahikoa. Baina jakin al nezake nor zareten?

—Frantziako astronomorik onenak gara!

—Ez dut zalantzarik egiten, baina zer dira astronomoak?

—Zeruan zer gertatzen den eta lurlean zer jazoko den dakiten jakintsuak.





—Hori ikusten duzue zuek! Esango al zenidakete zer eguraldi izango dugun bihar?

Amonak patatak atera nahi zituen.

Bi astronomoek jaso zituzten beren sudurrak zerurantz eta ez zuten ikusi ez hodeirik ez behelainorik.

—Ederra egingo duela esan diezazukegu.

Amonak buruari eragin zion.

—Nik alderantzizkoari diot beldurra: nire astoa bost-sei bider ibili da garagarra eta behiak belar gainean etzanda ari dira gauari itxaroten. Apeta hauek dituztenean, euria etortzen da beti.


Bi astronomoek ongi egin zuten lo ganbaran.

Baina egunaren lehen orduetatik ez zegoen zalantzarik: euria zen jazarrika. Ura etengabe ari zen arbelezko teilatutik erortzen parrastaka.

Astronomoetako batak bestea esnatu zuen.

—Goazen ahalik azkarren. Gaizki iragarri dugu eguraldia. Gure ostalariak adarra joko digu.

—Itzul gaitezen Frantziara —erantzun zion besteak—. Hemen astoak eta behiak gu baino azkarragoak dira.





OTSOAREN ADU TXARRA

Otso batek hiru asto aurkitu zituen basoan.

—Egun on, adiskideak —esan zien—. Garaiz zatozte. Gaur jaia ospatzen dut eta gogo bizia dut oturuntza eder bat egiteko.

Astoetan zaharrenak erantzun zion:


—Otso maisua, zeuk nahi bezala jokatzeko moduan izango zara, gu makalagoak baikara. Baina, azken mesede bat eskatu nahi dizugu: utz iezaguzu azkenengoz elizara joaten meza entzutera.

Otsoak onartu egin zuen.

Hiru astoak sartu ziren elizan eta trinko itxi atea barrutik. Otsoa itxaroten geratu zen.

—Meza hau oso luze doa. Erramu Igandea edo pazkoa ote da?

—Ez da Erramu Igandea ezta pazkoa ere —erantzun zion astoak barrutik—. Inuzente eguna da. Gure haragian hortzik sartuko ez duzun eguna.





Otsoa gose gorritan aldendu zen.

Zelaian behor bat aurkitu zuen bere moxalarekin.

—Egun on, adiskide. Zein ongi zatozten nire jaia ospatzeko!

—Otso jauna, zu indartsuagoa zara. Zeuk nahi bezala joka dezakezu. Baina, mesedez, aterako al zenidake oin azpitik hor sartu zaidan arantza bat, herrenka ibiltzera behartzen nau eta?

Otsoa, pozik, hurbildu zitzaion arantza ateratzera.

Behorak, bere hankamenean ikusiz otsoa, izugarrizko ostikada batez, baloiaren erara jaurti zuen urrutira.

Otsoa, guztiz minduta, herrenka aldendu zen.

Istil eta putzu baten ondoan txerrama bat aurkitu zuen bere bederatzi umeekin (bederatzi esne-zahatotxoekin).


—Egun on, adiskideak; azkenean ere zeuokin ospatuko dut nire jaia!

—Otso jauna —erantzun zion txerramak—, gu zure eskuetan gaude, nola ez ba; baina begira nolako gaizki haziak diren nire txiki hauek, eta lokatzartean zikindu dira. Horrela ezin ditzakezu jan. Lagunduko al zenidake burutik buztaneraino garbitzen?

Otsoa ardura handiz aritu zen txerrikumeak garbitzen. Txerramak, otsoa lanari erabat emana zebilela ikusita, isilka hurbildu eta buru kolpe bakarrarekin putzura bota zuen.

Txerrama eta bere bederatzi txerrikumeak trostan aldendu ziren.


Laster zabaldu zen inguruetan otsoaren presentziaren berria eta herriko txakurrek elkartu, harrapatu eta hil egin zuten.



Istileko basiliskoa

25

Basiliskoa piztia beldurgarria da, katua, sugea eta txoria, batera. Haren isatsak lantza dirudi; eta handiena, bere begiradaz hil dezake... Esaten denez, Arabako Urrialdon, jendea oparotasunean eta lasai bizi omen zen. Baina egun batean erabat aldatu zen. Biztanleria ezinegonak hartuta, desagertu egin zen alaitasun guztia.






Suge batek oilo arrautza bat ostu, hori besterik ez, eta berotu egin zuen. Unea iritsi zenean, arrautza zulatu eta haren barrenetik basiliskoa atera zen.

Nolakoa zen basilisko hori?

Ez zen katua baino askoz handiagoa, oilarraren burua eta sugearen gorputzarekin, gandorra arantzaz betea eta isatsa moztaila, lantzaren erara luzea. Egiaz, izan daitekeen piztiarik bereziena!

Hain zuzen ere, kalterik harrigarrienak sortzen zituen haren begirada hutsak: lore bat zimel zezakeen, zuhaitza ihartu, hegaz zihoan txoria eratsi. Ezerk ezin zezakeen basiliskoa mendera. Inork ezin zuen eramán haren begirada, hitz batean, erabat zen hilgarria. Haren arantzaren batez zauritua, mugita sendabelarraz senda zitekeen soilik.

Dena den, borrokan hasiaz gero, bi aberek mendera zezaketen basiliskoa: oilarrak eta erbinudeak. Oilarrak, honen kukurrukua entzunik hil egiten baitzen eta erbinudeak, haren gorputzean sartu eta barrutik jan zezakeelako.





Baina Urrialdoko biztanleriak ez zekien horretaz ezer. Inork ez zien eman horren berririk. Horrela, bi emakume joan ziren putzura, arropak garbitzera. Basiliskoa han zegoen, putzuaren erdian, zuhaitz baten enbor gainean, atsedenean.

—Zer dago han enborraren gainean? —galdetu zuen batak.

—Oilarra dirudiela esango nuke.

—Oilarra putzuaren erdian! Noiz ikusi duzu horrelako zerbait?

Lotan zegoen basiliskoa esnatu egin zen eta begirada bat bota zien. Bi emakumeak hil egin ziren eta piztia desagertu.

Jende asko ari zen herrian emakume haien heriotzaz galdezka. Inork ere ez zuen ematen arrazoi betegarririk. Baina ezinegona goraka joan zen, gizon bat bidean hilik agertu zenetik, eta bi egun geroago, beste bi putzutik ez urruti.

—Bada mustroren bat putzuaren inguruan.

—Han kokatu den sorginen bat da!


—Ertzean hazten diren belarren batzuen pozoina da.

Era guztietako azalpenak eman ziren.

—Mutilik gazteen eta trebeenari galdetuko bagenio eta zelatan egoteko esan?

Horrela aukeratu zuten mutil gazte argi eta trebe bat. Egunsenti aurretik joan zen putzura, gertu zegoen zuhaitz batera igo eta eseri egin zen begiratzeko. Luzaro egon zen abar artean ezkutuan.

Igaro zen goiza. Ez zen berririk izan.





Eguerdi inguruan, bidetik zetorren zalpurdi baten hotsa entzun zuen. Bidaiariak geratu ziren atsedena hartzeko eta leku atsegina bat aurkitzeko.

Baina une honetan putzutik atera zen basiliskoa, bidaiariari begiratu zion, gero begirariari. Eta bat-batean ezkutatu zen.

Mutilak ez zuen ulertu gertatu berria zena. Inguruan begiratu zuen. Putzuko uretara begiratu zuen. Ezer ere ez. Basiliskoa berriz ere oso ongi ezkutatu zen.


Mutilak, lehenbailehen itzuli eta, gertaturiko guztiaren berri ematea erabaki zuen. Hainbeste misterio, hainbeste arriskuren aurrean, zenbait jendek herritik alde egitea erabaki zuen eta beren etxeak erori egin ziren.

Jarraitu zutenak txiroki bizi izan ziren. Ez ziren etxeetatik ateratzen. Putzuari batez ere beldurra zioten eta hara ez ziren ura ateratzeko ere hurbiltzen. Esaten zenez, madarikazioa zeukan Urrialdok.

Inork erabiltzen ez zituen bideak, belarrez jantzita, janari bila zebiltzan zaldi-behorrentzat geratu ziren. Jabeek ez zuten abereen ardurarik hartzen. Ura edatera putzura hurbiltzen ziren zaldi-behorrak basiliskoak hiltzen zituen bere begirada hilgarriaz.

Egun batean, luma gutxi batzuek besterik ez zituen oilar zahar bat etorri zen putzuaren aldamenera.

Han zegoen basiliskoa. Oilarra ikusi eta begirada herio-garria bota zion. Oilarrak ere begiratu zion piztia bereziari eta uretan sartu zuen mokoa eta ondoren burua jaso, hegaztiekin egin ohi dute erara, apur batean horrela geraturik. Basiliskoak bizikiago begiratu zion. Ez zen ezer gertatzen.





Oilarra jada ez zen egarri. Bazuen astia kanturako eta dena ongi zegoela adierazteko. Arnasa hartu, paparra atera eta kukurruuuuuuu... jo zuen.


Basiliskoa kordokatu egin zen. Berehala harri bihurtu, harria zatitu eta uretara erori zen.

Oilarra lasai itzuli zen oilategira. Baina herriko azken biztanleatariko batek ere ez zekien putzuan gertatuaren berri. Beldurraren beldurrez bizi ziren eta beti ere joateko asmotan. Oilar batek askatu berriak zituen halako piztiaren mehatxutik. Etxeak banan-banan erori ziren. Sukaldeetan eta geletan zuhaitzak erne eta hazi ziren. Jada ez zen gehiago Urrialdo aipatu.



Ilinti begidun txakurra 26

Hona hemen bi gauza erakusten dizkigun istorio berezia: bat, ez dela egokia adarra jotzean urrutiegira iristea, eta bigarrena, ez dagoela txakurra baino leialagorik...





Berrizko mutil bat ez zebilen isileko ideiatan egun hartan. Herriko etxeetatik zebilen atea jo, barre egin eta laster ospatzekoa zuen ezkontzara bere lagunak gonbidatzen. Mutilarekin poztu eta ardo pixka bat hartzeko baliatzen ziren.

Mutila, beraz, zoriontsu zebilen.

Kanposantu aurretik igarotzean, hildako baten burua ikusi zuen. Han zegoen, ez jakin nola eta, jaso eta elizara eramanez, ostikada zoriontsua eman zion.

—Hi ere nire ezkontzara gonbidatzen haut.

Barre algara egin, bakarrik baitzegoen, ontzat eman bere broma, eta hor utzi zuen hori. Beste etxe batzuetara joan zen beste senide eta adiskide batzuk gonbidatzera.

Handik aldi laburrera konturatu zenez, ilinti begidun txakur beltz handi bat ari zitzaion jarraika. Gelditu egin zen. Txakurra ere gelditu. Arineketan hasi zen. Txakurra ere bai. Kale guztietatik joan zen aberea begien bistatik galdu ezinez.

Mutilak abereari begiratzeko aukera ere izan zuen. Begietan lazadura eta krudel airea zeukan, oso argal zegoen, baina larrua distiratsua zegoen. Izututa zegoen mutila.

Lasterka joan zen etxera. Amak, halako zurbiltasunez ikusirik, harrituta galdetu zion:

—Baina, seme, zer duzu horren zurbil? Zer gertatzen zaizu?

—Ilinti begidun txakur beltz handi bat datorkit ondoren.

—Txakur beltza!

—Bai, begira han behean, zelatan ari zait...

Amak ikusi zuen txakurra eta ikaratu egin zen. Gogoratu zen mutila hilaren buruari emandako ostikadaz eta





bere abenturaren kontakizuna bukatu zuen... Ama eta semea begira egon zitzaizkion kale barrenean oraindik geldi zegoen txakurrari. Zeren zain ote zegoen? Zer adierazten zuen presentzia horrek?

—Ene seme, zoaz ahalik lasterren Martzialengana. Esperientzia eta urteak ditu eta sorgina¹ da gainera. Berak soilik esan diezazuke egin behar duzuna. Ez galdu denborarik. Zoaz oraintxe bertan haren etxera!

Atera zen mutila etxetik kalera eta lasterka hasi zen. Ilinti begidun txakurraren ondoan abiatu zen. Joan zen sorginaren etxera eta gertatzen zitzaionaren berri eman zion. Martzialek atea ireki eta han ikusi zuen, txakur beltza metro gutxitara zegoen geldi.

Astiro itxi zuen atea eta mutilari esan zion:

—Oso gaizki egin duzu hilaren buruari ostikada ematean. Txakurra da, hilaren jagolea eta, zalantzarik gabe, mendekatuko du bere nagusia...

Laster ezkontzekoa zen mutil gaztea artegatuta zegoen. Sorginari begietara begiratu zion, irtenbideren baten zain. Sorginak esan zuen:

—Txakur galduak beraien ugazaben arimak dira eta bizitzan egindako hutsak ordaintzea nahi izaten dute.

Sorginak luzaro pentsatu zuen.

¹ Sorgin bilaka daiteke, sorgin izan den beste baten arropaz jantzi eta «porla se, zalpate, funte fa, funte fi, txiri, biri, ekatsu, ekatsu, amen!» esanez hanka batekin aitaren egin eta elizari hiru bira eman ondoren.

Ahalbide berezietz baliatzen den aztia ere izan daiteke edo larunbatean emakume sorginduarengana joanez, sorginarengana, alegia.





—Bai —esan zuen azkenean Martzialek—, baliteke irtenbideren bat izatea. Eztaiko bazkaria hasten denean, jar ezazu txakurra zeure ondoan, beste ezein mahaikide baino lehen zerbitza dezatela, eta berarentzat izan daitezela zatirik onenak.

Mutilak gogoan jaso zituen aztiaren hitzak, hainbeste ikara sartu baitzitzaion txakur beltzak jazarria sentitzean. Berandu gabe lehen bere gainera habailduko zen mendeku ikaragarriren batez ere pentsatzen zuen.

Ezkondu zen mutila. Zerbitzatu zen bazkaria. Mutilak sartu zuen txakurra eta bere ondoan jarri zuen. Atalik onenak eman zizkion eta beste edozein bazkaltiarri baino lehen zerbiarazi zuen.

Mutilaren portaera ikusita, denak zeuden harrituta.

—Trufaka?

—Burutik al dago?

—Baina, mutil, zergatik ematen dizkiok txakurrari zatirik onenak?

—Ez iezadazue ezer galdetu. Baditut nik neure arrazoi onak horrela jokatzeko.

Jaiak aurrera jarraitu zuen. Ohitu egin ziren txakurra ikustera. Abesti zaharrak kantatu ziren, dantzan egin zen. Gauean, gonbidatuak ateratzen hasi zirenean, txakurrak hitz egin zuen:

—Ongi egin duzue ni ohorezko lekuan jarri eta mokadurik onenak ematean, bestela, nire zigorra ikaragarria izango zen. Nire ugazabaren jagolea naiz ni, berak bidali nau hona mendeku hartzera. Orain berak ere barkatzen dizue eta gehiago ez nauzue ikusiko.


Hitz hauek entzun ondoren, txakurra desagertu egin zen.



Bizitza lehiaketa etengabea da

27

Aita batek hiru alaba zituen. Denak oso ederrak. Egun batean, ehizean ari zela, zarata ikaragarria entzun eta Herensugea ikusi zuen berarengana etortzen... Ahotik sua botatzen duen suge izugarria da Herensugea. Mendipeetan egiten du lo eta esnatzean karranka eragiten die. Beldurrak hartuta jartzen ditu gizakiak eta hauei, maiz, alabak eskatzen dizkie opari.





Herensuge honek, dragoi honek, behe-basoa zapaldu eta zuhaitzak botatzen zituen isats eskerga zeukan. Ehiztariarengana oldartu eta honen aurrean geratu egin zen bat-batean:

—Zure alabetariko bat ematen ez badidazu emazte—esan zuen ehun idik baino ahots indartsuagoz— zurekin, une egokian, ez dut mokadu bat besterik egingo.

Gizon gizagaixoa, laborriak hartuta, baiezko hitza eman eta berehala sartu zen etxean.


Gauean, alabetan zaharrenari hitz egin zion.


—Mustro baten emazte baino nahiago dut bizirik jana izatea.

Bigarrenak erantzun berdina eman zion. Gazteenari ezin zion eskaini hain ezkontza desaraukorik.

Baina honek, hain zuzen ere, esan zuen:

—Aita, ez zaitetz tristetu deusik ere. Dragoiak jan gaitzan geratu orde, ikustera joango natzaio eta haren emazte egingo naiz.







Ez zuen besterik esan eta, aitaren eskuetan jarriz, dragoia ikustera abiatu zen. Piztiak atseginezko kurrinkaz hartu zuen.

Aita itxita, etxera zihoala izan zen hau.

Gaztelu polita zen, basoaren erdian galdua, apain hornitutako gelak, tximinia eta guztizko behesua, beti ilinti ugarriak sutan eta platerik jangarrienak mahaian bata bestearen ondoren. Baina neskari harrigarrien egin zitzaiona, eguzkia sartzen zenetik bere ondoan printze galant, bizi eta argia ikustea zen; berak azaldu zion egoera: dragoi zen egunez, printzea, berriz, gauez.

Eguzkia ateratzen zenetik desagertzen zen gaztelutik, bere emazteak ikus ez zezan; izan ere, dragoi egoeran lurraldea hondatzen baitzuen. Emazte gaztea laster batean liluratu zen senarrarenganako maitasunez.

Baina, aldi batera, familia bisitatzeko gogo sartu zitzaion.

—Joaten utziko dizut —esan zuen printzeak—, baina emaidazu hitza ez diozula inori azalduko nire sekretua. Ez diozula inori emango zeure begiz ikusiaren berririk.

Neska, gogo onez hitza eman ondoren, aitaren etxera joan zen.


Etxera iritsiaz batera mila galderari erantzun behar izan zien:

—Egiaz al zen dragoiaren emaztea?

—Maitagarria al zen senar hori?

—Ohea atsegina al zen? Ez al zen harpea?

—Zer hizkuntza erabiltzen zuten biak bakarrik zeude-nean?





—Zer egiten zuen senarra lurraldea hondatzen ari zen bitartean?

Neskak esan zuen senarra maitagarria zela, adeitasunez hitz egiten zuela eta haren etxea erosoia zela. Hitz batean, emakumerik zorionsuena zela.

—Harrigarria —esan zuen zaharrenak—, dragoi ikaragarriaren emaztea zara, eta nik ez nuke nahi mundu hone-tako ezergatik ere zure lekuan egon.

—Jainkoak alden gaitzala dragoiengandik —esan zuen bigarrenak.

—Zeri esaten diozu dragoiaren emazte izatea? —galdetu zuen amorruz gazteenak—. Jakin nire senarra ez dela zu baino dragoiagoa eta, egunen batean aurkitzen baduzu, zure senarra izango dena bezain gizon galanta dela.

Hitz horiek esan besterik ez, bihotzean mindurik sentitu zen.

Senarraren agindua hautsia zuen eta iraduz ibili zen etxea utzi eta gaztelura itzultzeko.

Senarrak bazekien zer gertatu zen eta tristura handiz esan zuen:

—Nire zigorrak egun hauetako batean bukatu behar zuen: gizaki izatera etorriko nintzen betirako. Baina zure erruz, beste zazpi urte itxaron beharko dut. Banoa munduan zehar eta zu bilaka ibiliko zatzaizkit alferrik.

Hitz hauek esanda utzi zuen bere emaztea; urrezko gorua, urrezko ardatza eta urrezko harilkia besterik ez zion utzi. Emazte gaztea, hiru langai bitxiok harturik, biharamunean bertan abiatu zen senarraren bila. Zazpi urte luzetan ez zuen izan bere maitearen inolako berririk.



Gau batean, nekatuta, Eguzkiaren anaiaren etxera iritsi zen. Etxekoandreari, mesedez, gau baterako ostatua eskatu zion

—Atsegina nuke, baina aurki itzuliko da nire senarra, egun osoan trumoa lantzen aritu ondoren. Gosez itzuliko da eta arriskua zenuke gordinik jana izateko.

Emakume eskutik utziak atsedean pixka bat hartu nahi zuen, indarrak berreskuratzeko. Etxekoandrea errukitu egin zitzaion.

Laster itzuli zen Eguzkiaren anaia.

—Hau usainaren berezia! Gose hutsetan nagoela ustedut.

—Ahari iztar bat prestatu dizut.


Biharamunean, etxekoandreak bere bidetik bidali zuen bidaiaria. Bidez zihoala amonaxo bat ikusi zuen. Eguzkiaren ama zen. Bidaiariak ostatua eskatu zion gauerako.

—Bai, bai, baina nire semeak ikusten bazaitu erre egingo zaitu.

Eguzkia oso berandu etxeratu zen. Eta esan zion amari:

—Ezkontza polit bat izango da hirian. Esna nazazu oso goiz, festa hori alaitu nahi baitut. Emakumeak, ezkutaturik zegoen armairu barrenetik, ulertu zuen bere senarraz ari zela. Frogako zazpi urteak bukatu, printzesa eder batekin ezkontzera zihoan printze atsegin bihurtu zen. Eguzkia baino aurretik hartu zuen bidea, zer egin ongi pentsatu ondoren.

Emakumea festa bukatu ondoren iritsi zen. Senarra berriz ezkondua zegoen. Gazteluko atera iritsi eta ardazlari zerbitzuak eskaini zituen. Bikote berriak beharrezkoa izango zuen norbait jantziez arduratzeko. Atseginez hartu zuten.





Berehala hasi zen lanean. Urrezko gorua ikustean, harritu egin zen etxekoandre berria.

—Oraintxe ikusten ditut lehenbizikoz gela batean lan egiteko urrezko gorua eta urrezko ardatza. Nola eskuratu dituzu gauza hauek?

—Neure amarengandik. Gogoko al dituzu?

—Erosi egingo dizkizut. Salgai al dauzkazu?

—Bai, opari ematen dizkizut, baina utzidazu zure senarra aurkitzen, minutu bat besterik ez!

—Ez duzu gehiegirik eskatzen, ene txikia!

Horrela, zazpi urteen buruan, oraindik maite zuen gizonaren aurrean azaldu zen. Gizonak apur bat ahaztua zuen, baina ezagutu egin zuen. Asaldura handia gertatu zitzaion senarrari.

Printzeak antolaturik zuen afari handira gonbidatu zituen bere lagunak eta inguruko nobleak. Hizketan hasiz, arazo bat planteatu zien, itaun bat:

—Gizon bat duela zazpi urte ezkondu zen. Emaztea utzi beharrez gertatu zen. Hiltzat jotzen zuen eta berriz ezkondu da. Baina orain bi emazte ditu, lehenengoa aurkitu baitu. Zuen iritziz, zer egin behar du? Zein emaztekin jarraitu behar du?

Gonbidatuek zentzu handiz aztertu zuten arazoa eta bozeramaleak esan zuen:

—Lehenengoa da legezko emaztea.

Orduan printzeak esan zuen:

—Neu naiz aipatu berria dizuedan gizon hori, eta hemen, nire lehen emaztea, galdu baina berriz aurkitu dudan ardazlaria. Bihar bertan itzuliko diet bere gurasoei emazte egin berri dudana.



Post-data

Frantzia eta Espainiaren arteko mugak zatitzen du Euskal Herria. Hegoaldean lau probintzia daude (Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroa, hiri handi batzuekin: Donostia, Bilbo, Iruñea eta Gasteiz) iparraldean hiru probintzia (Lapurdi, Beheafarroa eta Zuberoa, Baiona, Biarritz, Hendaia edo Donibane Garazi hiriekin). Euskara, gaur ere mintzatzen eta idazten den hizkuntza izan da euskal nortasuna landu duena. Hor murgiltzen dira zuzenean ipuin eta elezaharrak: horien bitartez azaltzen da Euskal Herriaren irudimena eta mitologia. Irudimen borren abalik eta argazkirik leialena ematen saiatu naiz. Izaki berezi eta fantastikoz jantzitako naturatik hur dagoen gizakia somatzen da.

Euskal Herriaren irudi sendo batzuk jaso ditut. Donibane Lohitzungo atununtzi batean, itsasoan, arrantzuari ikus nezake neure burua; edo Donostian, Esteban nire lagunarekin, hango arandegietan, edo beste aldi bateko herrian bailaretako bideetatik zehar. Iholdin aurki naiteke, udaberriko goiz batean, Gorpuzti egunean, prozesio berezi batek txundituta; edo Bidarten, gau batean, munduko euskal pilota txapelketako azken partiduan, pilota enarak baino arinago zebilela; edo Tolosan, gau batean, lider asasinatu baten omenezko manifestazio isila kalean gora nire norabidean zetorrela; nire oroitzapenen begirada Santillanako egun euritsu batera doa, han nago harrizko arkupeetan, Altamirako zezen baten kopiari begira, eta han atzerago, mendi ederrak itsasora amiltzen Bilbo baino haruntzago. Azkenik, Orreagan ikusten dut neure burua, Tuteran, Bardeetako desertuan, Donapaleuko ikasleekin, Baztan bailaran mugak erori ziren egun berean. Gernikako haritzaren itzalean ikusten dut neure burua, eta gehiago oraindik Iratiko oihanetan,

Santa Garazin, kobetatik ez urruti. Beste oroitza batzuk ere aurki nitzake, zalantzarik gabe; baina guzti hauek lotzen dituen, herri txiki honenganako begirune handia, borroka trinkoa egin baitu bere hizkuntza, bere irudimena, bere ipuin eta elezaharrak gordetzeko. Ez du nahi izan besteek ordezkaturia izaterik, eta arrazoia du.


Denei eskaintzen diet liburu hau, batez ere kontakizun hauek birgogoratu eta baloratzen jakin dutenei, eskubide osoz baitira elezahar hauek mundu guztiko ipuindegien ondareko.


Liburu hau idazteko ondorengo lanekin girotu ditut nire buru-bihotzak:

- Légendes et récits populaires du Pays basque, *Jean-François Cerquand (Aubéron, 1888; berrargitarapena Bordele, 1992).*
- Basque Legends, *Wentworth Wesber (London, 1977).*
- Légendes du Pays basque d'après la tradition, *Jean Barbier (Elkar, 1931).*
- Quelques éléments pour découvrir la mythologie basque (*Lauburu, BP 314, 64103 Baiona cedex*).
- Dictionnaire illustré de la mythologie basque, *Jose Migel Barandiaran (Elkar).*

Nire eskerrona bereziki Margarita Mathieu, Garriskoari, bere laguntza argi emaile eta eragileagatik, liburu hau abalik osoena izatea eman baitit.

Michel Cosem





Agggur!!

AURKIBIDEA

Sarrera	5
① Anbotoko Mari	7
② Hiru olatuak	13
③ Mahistruba, itsaskapitaina	19
④ Urriloa eta lapurra	27
⑤ Lapurrik handiena	31
⑥ Hamalau	37
⑦ Tartaro eta Gizontxo	45
⑧ Anxo eta unaiak	49
⑨ Nola libratu Basajaunarengandik	53
⑩ Lamia eta hargina	61
⑪ Lamia eta erdi-hurrena	65
⑫ Lamiak eta gizonak	69
⑬ Graxi eta familiarrak	75
⑭ Ekilorea	83
⑮ Behor zuria	87
⑯ Bizar Gorri	95
⑰ Ona eta piztia	101
⑱ Bere arima galdu duen andere feudala	109
⑲ Ama, alaba eta aztia	115
⑳ Xirula eta laban sorginduak	121
㉑ Marro beltz, ahari beltza	127
㉒ Nola Kattalinek ziria sartu zion deabruari	133
㉓ Urrezko zezena	139
㉔ Barre egiteko bi ipuin	147
㉕ Istileko basiliskoa	153
㉖ Ilinti begidun txakurra	159
㉗ Bizitza lehiaketa etengabea da	163
Post-data	171

Nortasun handiko herririk baldin bada, Euskal Herria da hori, errealitate oso desberdineko zazpi probintzien mosaikoa, hizkuntza bakarraren loturak elkartua. Orhi gailurretik Iratiko oihanetara, Larrundik zehar Atlantikora arte, ipar eta hego Euskal Herriak bestelako paisaiak ditu, desberdinak. Ibaixoak Pirinioak busti eta zizelatzen; muino basotsuak, zelai eta larre berdeak, hirugune eta baserriak; ibar sakonak edo oihan eta belardiak txandaka doaz, arrantzaleen portu xarmagarriz apaindutako kostaldera iritsi arte. Lurrealde honetan jaso ditu Michel Cosem-ek hogei zazpi kontakizun, gizaldietan zehar, sukaldeko epeleko gau-solasaldietan, belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho etorri diren ipuinetatik aleren batzuk. Kontakizun hauetan erraldoiak agertuko dira, jeinuak, ogroak, maitagarriak. Euskal Herrian Basajauna, pamerrialak, Tartaro, lamiak deritze. Gizaki, artzain, itsasgizon, lapur eta printzesekin nahasten dira..., eta pertsonaia hauek guztiak parre eragin diezagukete, oihu eta negar.



9 788483 251843